

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

5456

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 30ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen idazkari nagusiarena, UPV/EHUko Ikasleen Arautegia argitara dadila agintzeko.

UPV/EHUren estatutuetako 18. artikulua ezarritakoarekin bat etorruta, Gobernu Kontseiluaren eskumena da ikasleen arautegia onestea, UPV/EHUren Ikasleen Kontseilua aldez aurretik entzun ondoren. Arau honetan, gutxien dela, kolektibo honen eskubide eta betebeharrak, bere ordezkartzaren estatutua eta ikasleen elkarteek UPV/EHU parte hartzeko mekanismoak agertu behar dira.

Aipaturiko xedapenean ezarritakoa aplikaturik, Gobernu Kontseiluak ikasleen arautegia onetsi zuen 2012ko ekainaren 21eko saioan, uztailaren 31n EHAA n argitaratu zelarik.

Ikastegi berrantolaketak eragindako egoera berrira egokituko bada, nahitaezkoa da arautegia aldatzea, ikastegi batzuetan sortu baitira egoitzako batzordeak eta ikastegi atalak, zein bere ikastegiaren campus berean zein beste batean egon daitezkeenak.

Halaber, ikastaldeko ordezkariak aukeratzeko sistema aldatu ere aldatu egiten da, prozesua bera zehazte aldera.

Egokitutako arautegia gobernu kontseilua onetsi zuen 2016ko azaroaren 3ko bileran eta, organo honen erabakiaren lehenengo atalak ezarritako epean zuzenketarik aurkeztu ez delarik, behin betikoz oneste da, erabaki beraren bigarren atalarekin bat etorruta.

Aintzat hartuta Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 legearen 10.2 artikuluari jarraituz unibertsitateak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dituela unibertsitateko gobernu organoek emandako aplikazio orokorreko xedapenak eta emanak zaizkidan eskumenak baliatuta,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Agintzea UPV/EHUko Ikasleen Arautegia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila.

Bigarrena.– Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen deneko egunean.

Leioa, 2016ko azaroaren 30a.

Idazkari nagusia,
JOSE LUIS MARTÍN GONZÁLEZ.

UPV/EHUKO IKASLEEN ARAUTEGIA

ATARIKO TITULUA

1.– Artikulua.– Aplikazio eremua.

1.– Arautegi hau UPV/EHUko ikasle guztiei aplikatuko zaie. UPV/EHUko ikasletzat hartzen dira titulu ofizialak, berezko tituluak, edo bizitzan zeharreko prestakuntzarako beste ikasketa espezifikoko batzuk eskuratzeko matrikulatuta dauden pertsona guztiak.

2.– Arautegi honek aurreikusten ez duen guztiari Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzeari buruzko abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua aplikatuko zaio, subsidiarioki.

I. TITULUA

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

I. KAPITULUA

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

2. artikulua.– UPV/EHUko ikasleen eskubideak.

UPV/EHUko ikasleek, gainerako ordenamenduak aitortutakoez gainera, honako eskubide hauek izango dituzte:

1.– Pentsatzeko, iritzia emateko eta adierazteko, eta biltzeko eta elkartzeko askatasunak izateko eskubidea, UPV/EHUren eremuan askatasun horiek gauzatzea bermatuko dituzten bitartekoak eskura izanda.

2.– Berdintasuneko eta baztertuak ez izateko eskubidea, alde batera utzita haien jatorria, unibertsitate-ikastegia, egiten ari diren ikasketak eta bizi osoko prestakuntzaren zer etapatan dauden matrikulatuta. Bereziki zainduko da premia bereziak dituzten unibertsitateko kideak baztertuak ez izatea beren ahalmen urritasunengatik, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitateko sarbidean, sarrean, iraunkortasunean eta onartutako titulu akademikoak edo beste titulu mota batzuk egitean.

3.– Intimitatea, irudi propioa, duintasuna eta jokabide sexuala errespetatzea, eta jazarpenaren aurka eraginkortasunez babestea.

4.– Parte-hartzea, UPV/EHUren ordezkarietako eta gobernuko organoetan ordezkarietako aktiboaren eta parte-hartzailearen bitartez, Estatutuek, Arautegi honek eta UPV/EHUren gainerako garapen-araudiek ezarritako baldintzetan. Ikasketak egiten dituzten unibertsitate-ikastegietako zuzendaritza-organoen hautaketan parte-hartzea.

5.– Eragiten dieten unibertsitateko gaiei buruzko informazio egokia jasotzea.

6.– Beren eskubideak bermatzea, prozedura egokien bitartez eta, hala behar izanez gero, Aldezleren jardueraren bidez.

7.– Beren eskubideak defendatzea, eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egitea. Etenaldi akademikoa erabakitzeak ez ditu ondorioak izango ikasleak eskoletara joateari dagokionez; edo nola ere, erabaki horrek ez du, inola ere, akademi ikasturtearen hasieran finkatutako ebaluazio

egutegia aldatuko. Beraz, ezin izango dira ebaluazio probak finkatu, hitzartutako datan aurreikusi ez badira.

8.– Osasunaren eta arriskuen prebentzioaren arloetan babes eraginkorra jasotzea, unibertsitateko campusetan. Arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza jasotzea, eta ikasketa-jardueretan osasuna eta segurtasuna bermatzeko bitartekoak edukitzea.

9.– UPV/EHUUn ikastea, aukera berdintasunez, indarrean dagoen unibertsitateko araudien esparruan.

10.– Bokazioari, ikasketei eta lanari buruzko informazioa eta orientazioa jasotzea. Halaber, UPV/EHUk aholkularitza emango die ikasleei, eragiten dieten jardueri buruz; batez bere, arlo hauetan: unibertsitate-hedakuntza, unibertsitate-ostatua, kirola eta bizitza osasungarriaren beste arlo batzuk, eta lan arlora igarotzeko prozesua.

11.– Kalitatezko prestakuntza akademikoa jasotzea, aukeratutako ikasketei dagozkien gaitasunak eskuratzea bultzatuko duena eta ezagutza, gaitasun, jarrera eta balio demokratikoetan oinarrituko dena.

12.– Irakaskuntza-programazioaren esparruan aukeratutako edozein hizkuntza ofizialetan ikasketak eta ebaluazioa egitea.

13.– Matrikula egin aurretik, irakaskuntza-eskaintza ezagutzea. Horren barruan honako hauek sartzen dira: irakasleen aurreikuspena, irakasteko hizkuntza, ebaluazio-probak egiteko datak, eta eragiten dieten deialdi guztiak.

14.– Informazioa jasotzea eta erantzukizunez parte-hartzea, Gizarte Kontseiluak onartutako UPV/EHUko iraunkortasun-arauen ezarpenari eta funtzionamenduari dagokienez.

15.– Irakaskuntzak aukeratzea, dagozkion irakasleekin, irakaskuntza-programazioak eskaintako aukeren artean eta ikastegiak eskuragarri dituen bitartekoen esparruan.

16.– Instalazio eta material egokiak edukitzea, ikasketak eta kultur- nahiz kirol-jarduerak normaltasunez egin ahal izateko. Premia bereziak dituzten ikasleek unibertsitate inguru eskuragarria izateko eskubidea izango dute, legez ezarritako baldintzetan.

17.– Irakaskuntzen antolakuntzan parte-hartzea, unibertsitateko organoen bidez, eta, hala badagokie, ikerlanetan laguntzea.

18.– Prestakuntza aldian, tutoretzako eta orientazioko sistema eraginkorraz baliatzea, beren curriculum osatzeko. Irakasleen, tutoreen eta ikasleentzako arreta zerbitzuen aholkularitza eta laguntza jasotzea, Arautegi honek ezarritakoaren arabera. Inguruabarrek hala eskatzen dutenean, ahalmen urriko ikasleek eskubidea izango dute Unibertsitateko sailek eta ikastegiek curriculumean nabarmenak ez diren egokitzapenak egiteko eta beren beharren arabera tutoretza espezifikoak ezartzeko.

19.– Irakasleen eta ikertzaileen irakaskuntza-ebaluazioan eta administrazio-zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea, bai eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzea ere, horretarako sortutako kalitate-batzordeetan beren ordezkariak izandako parte-hartzearen bidez.

20.– Ebaluazioari eta kalifikazioak berrikusteko prozedurari buruzko UPV/EHUko arauen gaineko informazioa jasotzea. Ebaluazio-probak amaitzean, horiek egin izanaren agiri bat jasotzea. Balorazio objektiboa eta, ahal bada, etengabea jasotzea, ikasleen errendimendu akademikoaren gaineko ikaskuntzako eta irakaskuntzako metodologia aktiboan oinarritutako dena, eta kalifikazioak

berrikustea. Eskolara ez joatea, bere horretan, ez da eragozpenik izango Arautegi honen V. tituluan araututako eskubide hau gautzeko. Ebaluazio-probak ahalmen urriko ikasleen premietara egokitu beharko dira, eta horretarako, sailek eta ikastegiek egokitzapenak egin beharko dituzte, metodo-logiari, denborari eta eremuei dagokienez.

21.– Legez onartutako prezio publikoak edo tasak ordaintzeko salbuetsita geratzea, eta aurreikusitako laguntzak jasotzea, kasu bakoitzean ezarritako baldintzetan. Era berean, estatuko deialdietako ikasteko bekak eta laguntzak eramangarri izango dira; hau da, ikasleek horiez gozatzeko eskubidea izango dute estatuko lurralde osoan, zer bizileku duten kontuan hartu gabe; UPV/EHUko bekak ere eramangarriak izango dira, dagozkien deialdietan ezarritako baldintzetan.

22.– Mugikortasuna bermatzeko beharrezkoa den administrazio- eta finantza-babesa jasotzea, aurrekontuko bitartekoen arabera.

23.– Doaneko prestakuntza jasotzea, lankidetzako eta parte-hartze sozialeko jarduerak egiteko UPV/EHUK sinatutako lankidetzak-hitzarmenen esparruan.

24.– UPV/EHUK antolatutako borondatezko, parte-hartze sozialeko, garapenerako lankidetzako, eta gizarte-erantzukizuneko jardueretan parte hartzeko aukera izatea. Ahalmen urriko ikasleen parte-hartzea sustatuko da, garapenerako lankidetzako eta parte-hartze sozialeko proiektuetan.

25.– Boluntario edo laguntzaile izatearen egiaztagiria edukitzea, jarduera egiteko gaituko eta identifikatuko duena.

26.– Aitorpen akademikoa jasotzea, unibertsitateko kultur-, kirol-, ordezkartza-, elkartasun- eta lankidetzak-jardueretan parte-hartzeagatik, indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzetan. Ikasleak hala eskatuta, UPV/EHUK antolatutako borondatezko eta parte-hartze sozialeko jardueretan emandako zerbitzuak egiaztatzen dituen agiria igorriko da, honako hauek zehaztuta: data, iraupena, eta ikasleak boluntario edo laguntzaile gisa egindako zerbitzuaren izaera.

27.– Ikasketak, lana eta familia bateratu ahal izateko jarduera akademikoak zentzuz diseinatzea, eta horiek egiteko arreta jasotzea, UPV/EHUren antolakuntzako eta aurrekontuko baliabideen arabera.

28.– Lan-esperientzia ikasketetarako balioztatzea, UPV/EHUK finkatutako baldintzen arabera.

29.– Mugikortasun-programetan parte-hartzea, indarrean dagoen legediaren esparruan.

30.– UPV/EHUK eta beste erakunde batzuek garatutako laneratzeko behatokiak eta programak ezagutzea, eta horietan parte-hartzea.

31.– Beren datu pertsonalak ez erabiltzea, izaera pertsonaleko Datuen Babeserako Legeak araututako xedeak betetzeko ez baldin bada.

32.– Ikasketetan eginiko lanen egile gisa aitortua izatea.

33.– Bizitzan zeharreko unibertsitate-prestakuntzara sartzea. UPV/EHUK dagozkion onarpen-bitarteko espezifikoak ezarriko eta zabalduko ditu horretarako.

3. artikulua.– Graduak eta masterreko ikasleen eskubide partikularrak.

Graduko eta masterreko ikasleek honako eskubide partikular hauek izango dituzte:

1.– Graduak eta Masterreko tituluak egiaztatzeko memoriei buruzko informazioa jasotzea, eta horiek egiten parte hartzea.

2.– Aurretik jasotako prestakuntza, edo, hala badagokio, aurretik egindako lan-jarduera aitortua izatea.

3.– Irakaskuntza-taldea aukeratzea, hala badagokio, UPV/EHUK ezarritako baldintzetan. Horrela, prestakuntza bateragarria izango da laneko edo familiako beste jarduera batzuekin, eta, zehazki, genero-indarkeriaren biktima diren ikasleen eskubideak bete ahal izango dira.

4.– Kalitatezko prestakuntza teorikoa eta praktikoa jasotzea, aurretik egindako irakaskuntzetan finkatutako helburuen arabera eskuratutako gaitasunekin bat etorriko dena. Masterreko irakaskuntzen kasuan, prestakuntza hori dagokion tituluan lanean edo ikertzen hasteko aurreikusitako helburuetara egokituko da.

5.– Lehen urtean eta graduko ikasketak egin bitartean, tutoretza eta orientazio pertsonalizatua jasotzea, unibertsitate ingurunera egokitzeko eta errendimendu akademikoa areagotzeko. Ikasketen amaieran ere eskainiko zaie, lan arloan sartzeko, profesionalki garatzeko eta unibertsitateko prestakuntzarekin jarraitzeko. Masterreko irakaskuntzen kasuan, eskubide horren xedea izango da lana egiteko eta ikerketa arloan hasteko prestatzea.

6.– Praktikak egiteko aukera izatea, curriculumekoak edo curriculumetik kanpokoak. Kanpoko erakundeetan eta UPV/EHUKo ikastegi, egitura edo zerbitzuetan egin ahal izango dira, aurreikusitako modalitatearen arabera eta horren prestakuntza-xederako baliagarriak direla bermatuta.

7.– Babes eraginkorra, akademikoa eta profesionala izatea, gradu-amaierako eta master-amaierako lanetan eta, hala badagokio, ikasketa-planean aurreikusitako kanpoko praktiketan.

8.– Gradu- edo master-amaierako lanaren jabego intelektuala aitortzeko eta babesteko eskubidea, bai eta aurretik egindako ikerlanena ere, gaiari buruz indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzetan.

9.– Mugikortasunerako laguntza-deialdietan eta programetan parte-hartzea; bereziki, ikasketen bigarren erdian.

10.– Erakundea ebaluatzeko prozesuetan eta unibertsitateko kalitatea bermatzeko agentzietan parte hartzea.

4. artikulua.– Doktoregoko ikasleen eskubide partikularrak.

Doktoregoko ikasleek honako eskubide partikular hauek izango dituzte:

1.– Kalitatezko ikerketa-prestakuntza jasotzea, bikaintasun zientifikoa bultzatuko duena eta zuzentasunari eta gizarte-erantzukizunari arreta eskainiko diona.

2.– Prestakuntza-prozesua gidatuko duen tutore bat izatea, eta doktore-tesiaren lana berrikusiko duen zuzendari bat eta, hala badagokio, zuzendarikide bat izatea, ikertzaile gisa esperientzia egiaztatua izango duena.

3.– UPV/EHUK, hirugarren zikloko programetan, doktoregaiak ikerketako taldeetan eta sareetan sartzeko aukerak bultzatzea.

4.– Ikerketen arloko karrera profesionala ezagutzea, eta UPV/EHUK beren programetan ikerketa-karrera egiteko aukerak bultzatzea.

5.– Ikerkuntza-prestakuntzarako eta mugikortasunerako laguntza-deialdietan eta programetan parte-hartzea.

6.– Doktore-tesiaren emaitzei dagozkien jabego intelektualaren babesa izatea.

7.– Ordezkaritzako eskubideei dagokienez, prestakuntza-bidean dauden ikertzaitzat hartzea, zientziako eta ikerkuntzako gaiei buruzko legediak ezarritakoaren arabera.

8.– Doktorego-programen jarraipenean eta erakundea ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako baldintzetan.

5. artikulua.– UPV/EHU-k eskainitako prestakuntza etengabeko eta beste ikasketa batzuetako ikasleen eskubide partikularrak.

Ikasle horiek honako eskubide partikular hauek izango dituzte:

1.– UPV/EHUK etengabeko prestakuntza-programak garatzea, kalitate-irizpideen bidez, eta onarpen-sistema malguak izatea, aldez aurretik egindako lan-jarduera eta prestakuntza kontuan hartuko dituztenak.

2.– Prestakuntza, ahal den neurrian, lanarekin eta familiarekin bateragarri egitea, eta, hala behar izanez gero, genero-indarkeriaren biktima diren ikasleen eskubideak bermatzea; horretarako, UPV/EHUK ahal bezainbesteko malgutasunez antolatuko ditu ordutegiak.

3.– Zerbitzuen karta izatea, UPV/EHUK egingo eta zabalduko duena ikasturte bakoitzean, arlo horretan eskainitako prestakuntza zehaztuta. Zerbitzuen karta horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez: eskainitako jarduera motak eta horien iraupena, balio akademikoen mugak, eta ikasketak egiteko eskura dauden bitartekoak.

6. artikulua.– Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleen eskubideak.

1.– Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritakoaren arabera, goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta dauden ikasleek eta Goi Mailako eta, Errendimendu Handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, Goi Mailako edo Errendimendu Handiko kirolari gisa egiaztatuta dauden ikasleek, beste arautegi batzuetan aitortutakoez gainera eta dagokion unibertsitatearen gestiorako arautegian ezarritako arauen arabera, honako eskubide hauek izango dituzte:

a) Txanda, ordutegia, taldea edo tutoretza aukeratzea edo aldatzea, ikasketak entrenamenduen ordutegiarekin, lehiaketa ofizialen parte-hartzeekin eta ohiko egoitzatik kanpo egindako egonaldiarekin bateragarriak izango direla bermatzeko.

b) Eskoletara ez joatea derrigorrezko eskola-saioen % 25eko muga arte, lehiaketa ofizialetan parte-hartzeagatik, dagokion kirol-federazioak ziurtagiri baten bidez justifikatuta.

c) Azterketen egutegi malgua izatea, azterketek dena delako kirol-federazioaren ziurtagiriaren bidez justifikatutako lehiaketa ofizialekin bat egiten dutenean.

d) Aukera askeko kredituak jasotzea, dagokion unibertsitatearen gestiorako arautegiak ezarritako arauen arabera.

e) UPV/EHUren ordezkari izateko aukeratutako kirolariei lehiaketarako beharrezkoa den kirol-ekipamendua emango die Kirol Zerbitzuak. Era berean, eskura dauden bitartekoen baitan, kirol-instalazioak eta baliabide egokiak emango zaizkie, goi mailako edo errendimendu handiko kirolak eskatzen duen entrenamendua egiteko, edozein kirol-modalitatetan.

f) Ikasketen tutorea esleitzea. Tutore horrek laguntza akademikoa emango die, eta, horrez gain, programan sartutako ikasleen eta unibertsitateko estamentuen arteko solaskidea izango da.

g) Eskaintako plazen % 3 erreserbatzeko eskubidea, eta Jarduera Fisikoari eta Kirol Jarduerari buruzko ikasketetan, berriz, % 5a. Eskubide hori soilik aitortuko zaie goi mailako kirolariei.

h) Goi mailako kirolariek Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien ikasketa eta irakaskuntzeara sartzeko eskakizun gisa jarritako proba fisikoak egiteko salbuetsita geratzeko eskubidea izango dute.

2.– UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak aurreko atalean adierazitako eskubideak, g) letran aipatutakoa izan ezik, beste kirolari-talde batzuei zabaldu ahal izango dizkie, eskura dauden bitartekoak kontuan hartuta eta, betiere, beste ikasle batzuen eskubideak urratu gabe.

7. artikulua.– Genero-indarkeriaren biktima diren ikasleen eskubide partikularrak.

Aldeko babes-aginduaren bidez edo, salbuespen gisa, genero-indarkeriaren biktima izateko zantzuak daudela adierazten duen ministerio fiskalaren txostenaren bidez, genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten ikasleek honako eskubide hauek izango dituzte:

1.– Tutoretzak, ordutegiak, taldeak eta txanda aukeratzea edo aldatzea, haien segurtasuna bermatze aldera.

2.– Eskolara ez joatea justifikatuta geratuko da, arretarako gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek hala erabakitzen badute.

3.– Azterketa-egutegi malgua izatea, haien segurtasuna bermatze aldera.

4.– Psikologia Aplikatuko Zerbitzuaren arreta jasotzea.

8. artikulua.– Ikasleen eskubideak erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.

Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan, ikasleek justifikazio bidez eskoletara ez joateko eskubidea izango dute, derrigorrezko eskola-saioen % 25 arte.

9. artikulua.– Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleen eskubideak.

Norberaren autonomia sustatzeari eta mendeko egoeran dauden pertsonen arretari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, edo unean-unean indarrean dagoenak, aurreikusitako baldintzetan, mendeko senide baten zaintzailea dela egiaztatzen duen ikasleak honako eskubide hauek izango ditu:

1.– Eskoletara ez joatea justifikatzeko eskubidea, derrigorrezko eskola-saioen % 25 arte.

2.– Tutoretzak, taldeak, ordutegiak eta txanda aukeratzea eta aldatzea.

10. artikulua.– Ikasketak eta lana batera egin behar dituzten ikasleen eskubideak.

1.– Gizarte Segurantzaren Alta eta dagokion lan-kontratua aurkeztuta, astean 20 orduko baino gehiagoko lanaldia duela eta lanaldi hori eta eskolara joatea bateraezinak direla egiaztatzen duten ikasleek eskubide hauek izango dituzte:

a) Eskoletara ez joateko eskubidea, derrigorrezko eskola-saioen % 25 arte.

b) Tutoretzak, taldeak, ordutegiak eta txanda aukeratzea eta aldatzea.

2.– Goian aipatutako dokumentazioarekin batera, ikasleak sinatutako txosten bat aurkeztu beharko du, honako hauek adierazita: lanaldia, kontratuaren iraupena, zer irakasgai edo gairen eskoletara ezin den joan, eta irakasgai edo gaiaren eskola-hutsegiteen ehunekoa.

3.– Salbuespen gisa, Ikastegiak goian aipatutako eskubideak aitor diezaike astean 20 ordu baino gutxiagoko lanaldia duten ikasleei, aurkeztutako dokumentazioa eta ikasleak bere idatzian adierazitako inguruabarrak aztertu ondoren.

11. artikulua.– Hizkuntz eskubideak:

Ikasleek honako hizkuntz eskubide hauek izango dituzte:

1.– Edozein hizkuntza ofizialetan adieraztea.

2.– UPV/EHUko organoekin dituzten harremanetan edozein hizkuntza ofizial erabiltzea.

3.– Ikasketak eta ebaluazioa edozein hizkuntza ofizialetan egitea, irakaskuntza-programazioaren esparruan.

4.– Ikerlanak edozein hizkuntza ofizialetan egitea, argitaratzea eta defendatzea.

5.– Nolanahi ere, eskaintza elebiduna izanik, euskarako taldea ez egoteagatik gaztelaniako taldean matrikulatu behar duen ikasleari ebaluazio-probak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaio.

6.– Gradu- edo master-amaierako lana euskaraz egitea eta aurkeztea.

12. artikulua.– Eskubideen eraginkortasuna.

Arautegi honek ikasleei aitortutako eskubideak errealak eta eraginkorrak izan daitezen, UPV/EHUk bere gain hartzen ditu, besteak beste, konpromiso hauek:

1.– Ikasleei eskubideei buruzko informazioa ematea, eta horiek gauzatzeko erraztasunak ematea.

2.– Ahalmen urriko ikasleek beren eskubideak gainerako ikasleen baldintza beretan bete ditzaten, UPV/EHUk beharrezkoak diren baliabideak jarri, eta egokitzapenak egingo ditu, horren ondorioz eskatutako maila akademikoa murriztu gabe.

3.– Arautegi honek aitortutako eskubideak baliatzeko aukera bermatuko du, prozedura egokien bidez eta, edonola ere, Adezleren jardueraren bidez.

4.– Irakaskuntzako baldintzak eta eskaintza osagarriak bultzatuko ditu, honako helburu hauekin: ikasleen garapen pertsonala bultzatzea; haien prestakuntza osoa lortzea; UPV/EHUk, berak sortutako edo bera partaide den erakundeetan ikerketa- eta garapen-jardueren arteko lankidetzak bultzatzea; ikasleen prestakuntza praktikoa osatzea; eta, haien gizarteratzea eta laneratzea lortzea. Horretarako, hitzarmenak sinatuko dira bai hezkuntza-lankidetzak bultzatzeko, bai enpresa eta erakunde publiko nahiz pribatuetan praktikak egiteko; ikasleen eta unibertsitateko tituludunen lan-poltsak sortzea sustatuko da; eta, pertsona horiek enpresak sortzea bultzatuko da. Era berean, ikasleen parte-hartzea eta haien arteko elkartegintza bultzatuko dira. Horri begira, UPV/EHUk laguntza-sistema zabala bultzatuko du.

5.– Arautegi honek aitortutako eskubideen erabilera bermatzeko konpromisoa hartzen du, baldin eta indarrean dagoen legediaren esparruan egiten bada. Konpromiso hori betetzeak ez du inoiz zigorrik eragingo, ezta bestelako ondorio kaltegarrikerik ere.

6.– Ikastegiko Zuzendaritzak eta Saileko Zuzendaritzak irakasleen irakaskuntza-betebeharrak betetzen direla zainduko dute, Ikuskaritza Zerbitzuaren laguntzaz.

II. KAPITULUA

IKASLEEN BETEBEHARRAK

13. artikulua.– Ikasleen betebeharrak:

Unibertsitateko kideak direnez, UPV/EHUko ikasleek, gainerako ordenamenduan aitortutakoez gainera, honako betebeharrak izango dituzte:

1.– UPV/EHUren Estatutuak eta gainerako arautegiak ezagutzea eta betetzea. Bereziki, segurtasunari eta osasunari buruzko barne-arauak ezagutu eta bete beharko dituzte; batik bat, praktikako laborategien erabilerari eta ikerketa inguruneen buruzkoak.

2.– Gainerako pertsonen eskubideak errespetatzea, eta UPV/EHUko Estatutuen, Arautegi honen eta gainerako arau juridikoen arabera jardutea.

3.– Gainerako pertsonekin errespetuz jokatzeko, inor baztertu gabe.

4.– Dagozkien egitekoak bere gain hartzea profesionaltasunez, eta unibertsitateko kideekin lan-kidetzan jardutea, UPV/EHUren helburuak lortzeko eta haren funtzionamendua hobetzeko.

5.– Hauteskunde eta/edo izendapen bidez eskuratutako karguak arduraz eta erantzukizunez betetzea.

6.– Ordezkatzen dituzten ikasleei parte hartzen duten kide anitzeko organoen jarduerak eta erabakiak jakinaraztea, bai eta beren jarduerak ere, organo horiek ezarritako erreserba eta zuhurtzia kontuan hartuta.

7.– Partaide diren kide anitzeko organoen bileretan parte-hartzea, modu aktiboan eta erantzukizunez.

8.– UPV/EHUren xedeak eta funtzionamendua hobetzen laguntzea.

9.– UPV/EHUren edo haren erakunde laguntzaileen instalazioak, materialak, bitartekoak, ondasunak eta ondarea behar bezala erabiltzea eta zaintzea.

10.– Justifikaziorik gabeko aldeko traturik edo pribilegio-egoerarik ez onartzea.

11.– UPV/EHUren edo haren organoen izena, sinboloak eta ikurrak errespetatzea, eta zuzen erabiltzea.

12.– UPV/EHUren ekitaldi akademikoak errespetatzea, adierazteko eta agerraldiak egiteko askatasuna urritu gabe.

13.– Unibertsitateko kideak eta erakunde laguntzaileen edo UPV/EHU zerbitzuak ematen dituzten erakunde langileak adin, sexu, arraza, erlijio, sexu-portaera, genero-identitate, ahalmen urritasun edo pertsonaren beste edozein egoera pertsonal direla-eta ez baztertzearen aldeko jarrera izatea eta bultzatzea.

14.– UPV/EHUren xedeak eta funtzionamendua hobetzen laguntzea.

15.– Ikastea, eta bere prestakuntza osatzeko lagungarriak diren jardura akademikoetan parte-hartzea. Doktoregoko ikaslea izanez gero, ikerketan.

16.– Parte hartzen duen ebaluazio-prozesuetan erantzukizunez jokatzea, eta objektiboa izatea, eta, unibertsitateko jardueren kalitatea hobetzeko helburua izanik, UPV/EHUren ebaluazio-probetan edo dokumentu ofizialetan prozedura iruzurtiak erabiltzeari edo horietan laguntzeari uko egitea.

17.– Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuan parte-hartzea, subjektu aktibo gisa, ezarritako prozedurak eta epeak errespetatuz.

18.– Parte-hartze sozialeko eta garapenerako lankidetzako jarduerak zuzen egite aldera diseinatutako prestakuntza-ekintzetan parte-hartzeko betebeharra, horietan laguntzea eskatu bazaio.

19.– UPV/EHUren Estatutuek eta horiek garatzeko araudiek emandako beste batzuk.

II. TITULUA

IKASLEEN ORDEZKARITZAREN ESTATUTUA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

14. artikulua.– Ordezkarriak.

1.– Ordezkarriak izango dira UPV/EHUko ordezkari- eta/edo gobernu-organoetan parte hartzen duten ikasleak, baldin eta ikasleen kolektiboa osatzen duten pertsonak horretarako aukeratu badituzte, Arautegi honek, Hauteskunde Erregimen Orokorreko Arautegiak eta gainerako unibertsitate-arauek ezarritakoaren arabera.

2.– Ikastaroko ordezkariak Ikastegiko, egoitzako edo ataleko Ikasleen Kontseiluaren eta ikasleen arteko berezko solaskideak dira. Ikastaroko ordezkariak alde aurretik taldeko ordezkariak izateko aukeratuak izan diren pertsonak hautatuko dituzte, talde bakoitzeko ikasleen artean.

Ikastegi eta atalek ikastaro ordezkarien hauteskundeak deituko dituzte eskolaldia hasi eta hogeitau egunen barruan. Honetarako, honako arautegi honen III. eranskinean ezarritako protokoloari jarraituko zaio. Era berean, ikastegi eta atalek, zein bertako ikastegi eta ataleko ikasleen kontseiluaren berrespena tartean dela, hautatzeko berezko protokoloa onetsiko dute.

Honako titulu honetako 18. artikulua ezarritako betebeharrak ordezkarien irudiari aplikatuko zaizkio. Ordezkariei ere aplikatzekoak izango dira 17. artikulua 1 eta 3 artetako zenbakietan aitortutako eskubideak.

Ikasleek konfiantza kenduko ahal diote ordezkariari. Honetarako hautabidezko hautagaitza aurkeztuko dute eta, gutxien dela, lehengo ordezkaria hautatu duteneko zerrendan matrikulatutako ikasleen bi herenen botoa lortuta izan,

Tokian tokiko ikastegiko batzarrean, egoitzako edo ataleko batzordean ikasleen ordezkarien hautagai-zerrendak aukeratu ez izanagatik ikastegiko, egoitzako edo ataleko ikasleen kontseilua ezin izan bada eratu, ordezkariak ordezkatzeko dituen ikasleen solaskide gisa jarduteko aukera izango du, unibertsitateko gobernu organoen aurrean, eta 17. artikulua 1, 2, 3, 5 eta 6. zenbakietan ikasleen ordezkariari aitortutako eskubideak izango ditu.

3.– Ikasleen ordezkarietan parekotasun-printzipioa errespetatzea bultzatuko da, gizonen eta emakumeen parte-hartzea proportzionala izanik. Era berean, ahalmen urriko pertsonen parte-hartzea bultzatuko da, ikasleen ordezkarietan.

15. artikulua.– Hautaketa-prozesuetan parte-hartzea.

1.– Unibertsitateko ikasle guztiek UPV/EHUko, ikastegiko eta saileko gobernu-organotan eta beren kolektiboetan modu aktiboan eta demokratikoan parte-hartzeko konpromisoa dute, beren ordezkarien hautaketaren bidez.

2.– UPV/EHUK ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatuko du, hautaketa-prozesuetan. Hala, informazioa eta beharrezkoak diren bitarteko materialak banatuko ditu; eztabaida bultzatuko du, eta ikasleen inplikazioa erraztuko eta sustatuko du, haien parte-hartzea areagotzeko bitartekoak diseinatuta.

16. artikulua.– Ikasleen ordezkaria izateari uztea.

Ordezkarizate norberari dagokion ezaugarria da, eta galdu egingo da kasu hauetan:

a) Heriotza, ezintasuna edo gaitasunik gabe uztea.

b) Hauteskunde-prozesua baliogabetzea.

c) Agintaldia iraungitzea.

d) Dimisioa ematea.

e) UPV/EHUkoa edo ordezkari izateko aukeratu zuen taldekoa izateari uztea.

f) Organoak jarraian eginiko bi bilkuretara edo aldizkako laura ez joatea justifikaziorik gabe. Horrek ez du esan nahi kredituak transferitzeko arautegian organo horren ordezkarietarako ezarritako ECTS kredituak aitortuko ez zaizkionik.

II. KAPITULUA

ORDEZKARIEN ESKUBIDEAK

17. artikulua.– Ordezkarien eskubideak.

Ikasleen ordezkarietarako honako eskubide hauek izango dituzte:

1.– Ordezkaritzaren eginkizuna askatasunez betetzea.

2.– Adierazteko askatasuna, legezko arauak eta pertsona eta Erakundearekiko errespetua izanik horren muga bakarrak.

3.– Ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko informazio zehatza eta zuzena jasotzea.

4.– Erabakiak hartzeko prozesuan eta politika estrategikoetan erantzukizunez parte-hartzea.

5.– Ikasketak eta ordezkarietara-jarduerak bateragarriak izatea, beren prestakuntzari kalterik egin gabe. Zehazki, gobernu- eta/edo ordezkarietara-organotan ikasleen ordezkari gisa parte hartzeak ordezkariaren prestakuntzari eragiten diola iritziz gero, irakasleek tutoretza osagarriak antolatuko dituzte, ordezkariak irakasgaia edo gaia arrakastaz gainditzeko beharrezkoa den ezagutza lortuko duela bermatze aldera. Nolanahi ere, ikasleen ordezkarietara ez joateko eskubidea dutela ulertuko da, derrigorrezko eskola-saioren % 25eko muga arte, baldin eta UPV/EHUko Estatutuen 11.1. artikuluan aurreikusitako ordezkarietarako eta gobernuko kide anitzeko organoren batean parte hartu behar badute ikasleen ordezkari gisa. Ordezkariek hala eskatuko balu, tokian tokiko idazkaritzak izaera honen berri emango du legokiekeen ikastegi eta sailetako pertsona bakarrek.

organoei, kasuan kasuko irakasgaietako arduradunei jakinarazteko, ordezkari izateak eragin litzatekeen auziak aurreikusi eta ebaztearren, ordezkariaren betebeharrak eta betebeharrak akademikoak batera eraman ahal izatea bermatuz.

6.– Arautegi honen V. tituluaren xedatutakoaren arabera ebaluatutakoak izatea.

7.– Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaltzeko espazio fisikoak eta baliabide telematikoak izatea. Horrez gain, espazio propioak eta eskusiboak bermatuko zaizkie ordezkariari, informazioa zabaltzeko ez ezik, ordezkariaren lanak ere egin ahal izateko. Funtsezkoa izango da informazio horrek formatu eskuragarria izatea, eta espazio horiek egokituta egotea, ahalmen urriko ikasleen sarbidea eta parte-hartzea errazteko.

8.– Ikasleen ordezkari gisa bere funtzioak normaltasunez betetzeko baliabide teknikoak eta ekonomikoak izatea.

III. KAPITULUA

ORDEZKARIEN BETEBEHARRAK

18. artikulua.– Ordezkarien erantzukizunak.

Ordezkatzen dituzten pertsonen eta UPV/EHUri dagokienez, ikasleen ordezkariak honako erantzukizun hauek izango dituzte:

1.– Bileretara joatea, eta ordezkariaren duten taldearen kritikak, ekimenak, interesak eta proposamenak defendatzea UPV/EHUko organoen aurrean, ikasle orok UPV/EHUko arauen arabera horiek zuzenean helarazteko duen eskubideari kalterik egin gabe.

2.– Eman zaizkien lanak eta erantzukizunak eraginkortasunez eta arduraz betetzea.

3.– Kargua izateagatik jasotako informazioa zuzen erabiltzea, horren konfidentzialtasuna errespetatuz, izaera horrekin eman bazaio.

4.– UPV/EHUren eskubideak eta ondasunak babestea, sustatzea eta defendatzea.

5.– Beren egitekoak edo eskubideak betetzeko utzitako lokalak, materiala, dokumentuak eta gainerako ondasunak zaintzea eta zuzen erabiltzea.

6.– Ordezkatzen dituzten kideei parte hartzen duten kide anitzeko organoen jarduerak eta erabakiak jakinaraztea, baita beren jarduerak ere. Informatzeko betebeharrak behar besteko erreserbaz eta diskrezioz beteko du, datuak babesteari buruz dagoen araudiari errespetua galdu gabe. Betebeharrak hori ez betetzeak dagozkion erantzukizunak eragingo ditu.

III. TITULUA

IKASLEEN KONTSEILUAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO ATALA

IZAERA, PRINTZIO OROKORRAK

19. artikulua.– Ikasleen kontseiluen izaera, printzipioak eta araubide juridikoa.

1.– Ikasleen kontseiluek estatutuko organo independenteen izaera dute, eta Estatutuen 11.4 artikuluan onartuta daude UPV/EHUko organigrama orokorrean, ikasleak ordezkatzeko kide anitzeko organo gisa. UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua, campusetako ikasleen kontseiluak, ikas-tegietako ikasleen kontseiluak eta, hala balegokio, atal edo egoitzetako ikasleen kontseiluak dira. Arautegi honen ondorioz, egoitzako ikasleen kontseiluek, halakorik dagoenean, ataletako ikasleen kontseiluen tratamendu bera izango dute.

2.– Funtzionamendu demokratikoa izango dute, eta Arautegi honen arabera arautuko dira, UPV/EHUko Estatutuei eta gainerako araudiei lotuta.

3.– Ikasleen kontseiluen barruan ez dira sineste edo alderdi politikoren baten aldeko jarduerak egingo, ezta etekina ateratzeko izaera pertsonaleko jarduerak ere, haren izaera publikoarekin eta indarrean dagoen legediak ezarritakoarekin bat eginez.

4.– Ikasleen kontseiluen egoitza eta aretoak, tokian tokiko aretoak esleitzeko eskumena duen unibertsitate organoak xede horrekin utzitako aretoetan kokatuko dira, toki bakoitzeko ikasleen kontseilua entzun ondoren.

20. artikulua.– Ikasleen kontseiluen kide anitzeko eta kide bakarreko ordezkari-organok, oro har.

1.– Ikasleen kontseiluek kide anitzeko organoen funtzionamendua izango dute, eta, hobeto funtzionatzeko, lan-batzordeak sortu ahal izango dituzte.

2.– Ikasleen kontseiluen kide bakarreko organoak hauek dira:

– Kontseiluburua.

– Idazkaria.

– Diruzaina. Ezinbesteko organoa izango da, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan eta campusetako ikasleen kontseiluetan.

– Kontseiluburuaren ordezkoa, hala behar bada.

3.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko buruak hiru kide, Ikasleen Kontseilukoak ala ez, hautatu ahal izango ditu, funtzioetan laguntzeko. Nolanahi den, kide horiek UPV/EHUko ikasleak izan beharko dute.

Campuseko Ikasleen Kontseiluko buruak kide bat, Ikasleen Kontseilukoa ala ez, hautatu ahal izango du, funtzioetan laguntzeko. Nolanahi ere, kide horrek dagokion Campuseko ikaslea izan beharko du.

Kide horiek ikasleen ordezkariari aitortutako eskubideak izango dituzte, bai jarduera akademikoaren eta ebaluazioaren bateragarritasuna izateko, bai kontseiluburuari laguntza emateko beharrezkoak dituzten baliabideak eskuratzeko.

4.– Nolanahi den, ikasleen kontseiluei dagokienez, kontseiluko kide den pertsona batek ordezkatu du kontseiluburua, organoaren funtzioak betetzeko, eta, hala behar izanez gero, pertsona hori bera izango da Ikasleen Kontseiluko buruaren ordezkoa.

5.– Ikasleen kontseiluek, Arautegi honek eta indarrean dauden gainerako arautegiek ezarritakoa errespetatuz, barne-funtzionamendurako erregimena adostu ahal izango dute. Hala, dagokion Ikasleen Kontseiluko buruak bere gain hartuko du, edonola ere, beren funtzioen esparruan egingadako kudeaketaren ardura.

BIGARREN ATALA

IKASLEEN KONTSEILUKO KIDEAK

21. artikulua.– Ikasleen kontseiluko kide izatea.

Ateratzen den kontseiluburuak, edo, horrelakorik izan ezean, UPV/EHUK, dagokion organo eskudunaren bidez, Ikasleen Kontseilua osatzen duten ikasleei deituko die, kontseilua eratzeko. Ikasleen Kontseiluko kide izaera organo hori eratzearekin batera eskuratzen da.

22. artikulua.– Ikasleen kontseiluetako kideen eskubideak.

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kide edo campus, ikastegi edo ataletako ikasleen kontseiluetako kide diren neurrian, ordezkariak, Arautegi honek aitortutako eskubideez gainera, honako eskubide hauek izango dituzte, dagokien jarduera eremuan:

1.– Hutesle eta hautagarri izatea, ikasleen kontseiluetako kargu eta erantzukizun guztietarako, Arautegi honek ezarritakoaren arabera.

2.– Hitz egitea eta parte-hartzea, Ikasleen Kontseiluaren funtzionamenduko eta elkarbizitzako arauen arabera.

3.– Bilkuretako aktetan beren jardueren eta mintzaldien zehaztasunak jasotzea, egoki iritzi gero.

4.– Hala eskatuz gero, kontseiluko beste instantzia baten informazioa eta azalpenak jasotzea, bai eta horren artxiboak eta dokumentuak behar besteko bermeekin kontsultatzea ere.

5.– Kide den Ikasleen Kontseiluko bulegoa, materiala eta azpiegiturak eskura izatea, baldin eta horrek horien erabilera desegokia ez badakar eta kontseiluko jardueren normaltasuna eragozten ez badu.

6.– Ikasleen Kontseiluko hurrengo bileretako aztergaiak zerrendan gaiak sartzeari, Arautegi honek xedatutakoaren arabera horien deialdia egin aurretik.

23. artikulua.– Ikasleen kontseiluetako kideen betebeharrak.

Ikasleen Kontseiluko kide diren neurrian, ordezkariak, Arautegi honek xedatutakoaren arabera ordezkari gisa dagozkien betebeharrez gainera, honako betebeharrak izango dituzte, beren jardueraren eremuan:

1.– Dagokien Ikasleen Kontseiluko erabakiak betetzea, betearaztea eta ordezkatzeko dituzten kideei ezagutaraztea.

2.– Ordezkatzeko dituzten ikasleen iritzia helaraztea eta defendatzea, eta dagokien Ikasleen Kontseiluan egiten duten lanaren berri ematea.

3.– Ikasleei Ikasleen Kontseiluaren jardueraren eta erabakien berri ematea.

4.– Karguaren eginkizunetan burututako jarduerari buruzko informazioa ematea Ikasleen Kontseiluko gainerako kideei.

5.– Ikasleen parte-hartzea bultzatzea, dagokien Ikasleen Kontseiluan, bai eta ikastegietako, campusetako edo UPV/EHUko ikasleen kontseiluetan ere.

HIRUGARREN ATALA

IKASLEEN KONTSEILUETAKO JARDUERA-PRINTZIOAK, FUNTZIONAMENDUA ETA FINANTZA-BITARTEKOAK

24. artikulua.– Ikasleen kontseiluen jardueraren printzipioak.

1.– Ikasleen kontseiluak erabakiak hartzeko instantzia gorenak dira, horietatik sortzen baita beren kideen jardueraren. Ikasleen nahia adierazten dute, eta haiei dagokie eztabaidatzea eta erabakiak hartzea, dagokien jardueraren eremuan.

2.– Ikasleen kontseiluen jardueraren justiziako, berdintasuneko, askatasuneko eta demokratiako printzipioetan oinarritzen da.

3.– Ikasleen kontseiluen barruan, kide guztiak independenteak dira, eta erabakitzeko ahalmena dute. Halaber, kide bakoitzak boto eskubidea izango du, pertsonala eta besterenezina.

4.– Ikasleen kontseiluek barne-funtzionamendurako erregimen propioa finkatu ahal izango dute, Arautegi hau eta indarrean dauden gainerako araudiak errespetatuz.

25. artikulua.– Ikasleen kontseiluen deialdiak.

1.– Ikasleen Kontseiluak ohiko bilera egingo du, hiru hilabete behin, eta ezohiko bilerak egingo ditu, kontseiluburuak erabakitzen badu edo kideen bostun batek hala eskatzen badu, Ikasleen Kontseiluak bere barne-funtzionamendurako erregimenean ehuneko hori txikiagoa izatea erabakitzen duenean izan ezik. UPV/EHUko eskola-egutegian zehaztutako jaiegunetan eta oporraldietan salbuespeneko eta larrialdiko egoeretan bilduko da soilik.

2.– Ikasleen Kontseilua biltzeko deia kontseiluburuak egingo du, hura egin baino 48 ordu lehenago, gutxienez. Deialdia egiteko idatzian aztergai zerrandako puntu guztiak agertuko dira eta, hala behar izanez gero, horiei dagokien dokumentazioa erantsiko da ele bitan, salbuespenetan izan ezik. Kontseiluburuak kideen % 10ek idatzi baten bidez eskatutako puntuak sartu beharko ditu, bilkuretako aztergai zerrandan. Zerranda horretan, Kontseiluak larrialdikotzat jotzen dituen gaiak sartuko dira, baldin eta, gutxienez, kideen % 80 bilerara joan bada.

3.– Ikasleen Kontseiluko kide guztiak bertan egonda, lan-saio edo bilera bat egiteko kontseilua aho batez eratzearabakitzen badute aurreko puntuan aipatutako deialdia egin gabe, bilera edo saio horrek balioa izango du, ondorio guztietarako.

4.– Ohiko bilera guztietan, aztergaien zerrendako derrigorrezko puntuak honako hauek izango dira: aurreko bileraren eta onartu gabe zeuden ezohiko bilkuren aktak irakurtzea eta onartzea, erabakien eta proiektuen gauzatze mailaren berri ematea, eta galde-eskeak egitea.

5.– Ikasleen Kontseiluaren bilerak publikoak dira, eta horietan haren jarduera eremuko ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute. Kontseiluburuak mintzaldiak moderatuko ditu, bilera zuzen egiten dela bermatzeko.

26. artikulua.– Quoruma.

1.– Bilerak egiteko, deliberatzeko eta erabakiak hartzeko, Ikasleen Kontseilua zuzen eratuta egongo da, baldin eta kontseiluburua eta idazkaria edo, hala behar izanez gero, horien ordezkariak eta kontseiluko kideen erdia lehen deialdian bertaratzen badira.

2.– Aipatutako quoruma izan ezean, bigarren deialdia egingo dute, ordu laurden beranduago. Bigarren deialdi horretan kontseilua zuzen eratzeko, nahikoa izango da, kontseiluburua eta idazkaria egoteaz gainera, kideen heren bat egotea.

3.– Erabakiek balioa izan dezaten, horiek hartzeko unean, beharrezkoa izango da bigarren deialdian organoa eratzeko eskatutako gutxieneko kideak egotea.

27. artikulua.– Ikasleen kontseiluen erabakiak.

1.– Ikasleen kontseiluek bertaratutako kideek zuzen emandako botoen gehiengo sinplearen bidez hartuko dituzte erabakiak, Arautegi honek edo Ikasleen Kontseiluak berak besterik xedatu ezean.

Bereziki, ataleko, ikastegiko edo campuseko ikasleen kontseiluetako edo UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideen bi herenek eman beharko dute botoa, 2.7 artikuluan aurreikusitako etenaldi akademikoa egitea erabakitzeko.

2.– Berdinketa gertatzen bada eta kontseiluburuak hori hausteko kalitateko botoa erabiltzen ez badu, beste bozketa bat egingo da, eta, berriro ere berdinketa geratuz gero, proposamenari uko egin zaiola ulertuko da.

3.– Aurka eta abstentzioa bozkatzan duten organoko kideak erabakien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik kanpo geratuko dira.

4.– Erabakiak ikasleen ordezkari organoari erreserbatutako iragarki oholetan jarriko dira, eta dagokion webgunean. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren edo campusetako ikasleen kontseiluen kasuan, erabakiak, gainera, kronologikoki jasoko dira, eta horien eraginpean dauden campus, ikastegi eta ataletako ikasleen kontseilu guztiei bidaliko zaizkie, dagozkien iragarki oholetan jar ditzaten.

28. artikulua.– Etenaldi akademikorako prozedura berezia.

Etenaldi akademikoari dagokionez, Arautegi honen 2.7 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta artikuluhonetan ezarritako baldintza guztiak betetzen eta prozedurari jarraitzen bazaio.

1.– Etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, baldin eta eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada.

2.– Etenaldi akademikorako deialdia egiteko beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako gehiengo kualifikatua edukitzea. Etenaldi akademikoak UPV/EHU osoari eragiten badio, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren aldeko erabakia izan beharko da.

3.– Erabakia idatziz jakinaraziko zaio organo eskudunari (Dekanotza, Ikastegiko Zuzendaritza, Errektoreordetza).

4.– Eskaera Ikastegian edo atalean kokatutako Erregistro Orokorrean sartu eta, gehienez, hiru egun baliiodunen epean, organo eskudunak eskaera egin duen kontseiluarekin biltzeko deia egingo du, eskakizunak betetzen direla egiaztatze aldera. Etenaldia egiaztatzeko bilera hori egin gabe eginez gero, ez da, inola ere, Arautegi honen 2.7 artikulua xedatutakoa aplikatuko.

5.– Organo eskudunak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak jarriko ditu, etenaldi akademikoaren deialdiarekin bat ez datozen ikasleen eskubideak bermatze aldera.

29. artikulua.– Ikasleen kontseiluetako bilkuretako aktak.

1.– Kide anitzeko organoak eginiko bilera bakoitzean idazkariak akta bat jasoko du. Horretan, nahitaez zehaztu beharko ditu bileran izandako parte-hartzea, aztergaien zerrenda, non eta noiz egin den, eztabaidatuko gai nagusiak, eta hartutako erabakien edukiak.

2.– Aktan jasoko dira, organoko kideek hala eskatuta, hartutako erabakiaren aurkako botoak, abstentzioak, edo botoen esanahia.

3.– Era berean, kide guztiek dute beren mintzaldia edo proposamena osorik transkribatzea eskatzeko eskubidea, baldin eta, ekitaldian, edo kontseiluburuak adierazitako epean, haren mintzaldiari dagokion testua eman badu. Hori ere aktan jasoko da, testuaren kopia batekin batera.

4.– Gehiengoaren erabakiarekin ados ez dagoen kideak edo kideek boto partikularra helarazi ahal izango dute idatziz, berrogeita zortzi orduko epean, eta idatzi hori onartutako testuari batuko zaio.

5.– Aktak bilera horretan edo hurrengoetan onartuko dira; nola nahi ere, idazkariak hartutako erabakien ziurtagiriak igorri ahal izango ditu, aktaren onarpena gerora utzita. Nolanahi ere, egoera hori berriaz adieraziko da akta onartu aurretik hartutako erabakiei buruz igorritako egiaztagirietan.

30. artikulua.– Finantza-baliabideak.

1.– Ikasleen kontseiluek, beren egitekoak burutzeko, finantza-baliabide hauek izango dituzte:

a) UPV/EHUren urteko aurrekontu-ekarpena.

b) Berriaz eta zehazki onuradun diren ondare eta dohaintzak, eman diren baldintza berberetan. Horiek onartzeko, beharrezkoa izango da Ikasleen Kontseiluko bi herenen gehiengoa.

c) Beren jardueren bidez eskuratutako zenbatekoak.

d) Beste edozein diru-sarrera.

2.– Ikasleen Kontseilu bakoitzak erabakiko du UPV/EHUren aurrekontuetan esleitu zaion aurrekontua nola banatu behar duen.

3.– Ikastegiko aurrekontuak partida bat izango du ikastegiko ikasleen kontseiluaren jarduera ordaintzeko, halakorik balegokie, egoitza eta ataletako ikasleen kontseiluen artean banatuko dena.

LAUGARREN ATALA

IKASLEEN KONTSEILUETAKO BURUAK

31. artikulua.– Izaera.

1.– Ikasleen Kontseiluko buru den pertsona kide bakarreko organotzat hartuko da, eta bera izango da buru den Ikasleen Kontseiluaren bozeramailea eta ordezkari gorena, edozein instantziaren aurrean.

2.– Ikasleen Kontseiluko burua dagokion Ikasleen Kontseiluak hautatuko du, bere kideen artean.

32. artikulua.– Prozedura.

Hautatzeko prozesua honako hau izango da:

1.– Ateratzen den kontseiluburuak, hauteskunderen behin betiko emaitzak adierazi eta hamar eguneko epean, eta, hori izan ezean, UPV/EHUK berak, dagokion unibertsitate-organo eskudunaren bidez eta hurrengo hamar egunetan, Ikasleen Kontseilua osatzen duten ikasleei deialdia egingo die, kide anitzeko organoa eratzeko eta kontseiluburua, idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina aukeratzeko.

2.– Jarraian, bilera berean, hautagaiak aurkeztuko dira. Kontseiluburu izateko hautagai-zerrenda bakoitzak idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina izango ditu, eta, horiek, aldi berean, Ikasleen Kontseiluko kideak izango dira.

3.– Hautagai-zerrendak aurkeztu eta aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, hautagaiak bere jarduera-programa aurkeztu ahal izango du, eta, gero, hautaketa egingo da, isilpeko eta zuzeneko bozketaren bidez.

4.– Lehen itzulian zuzen igorritako botoen gehiengo osoa eskuratzen duen hautagai-zerrenda izendatuko da. Gehiengo hori lortzen duen hautagai-zerrendarik izan ezean, bozketa jarraituak egingo dira, boto gutxien jasotzen dituzten hautagai-zerrendak kenduz. Bi zerrenda geratzen bada eta eskatutako gehiengoa lortzen ez badute, gehiengo sinplea lortzen duena hautatuko da. Hautagai-zerrenda bakarra aurkezten bada edo, hasieran batzuk egon arren, bozketa egiteko egunean denek atzera egin eta bakarra geratzen bada, itzuli bakarria egingo da. Horretan, bozketa baiezko botoen eta boto zurien prozeduraren bidez egingo da. Hautagai-zerrenda bakar hori izendatu egingo da, zuzen emandako aldeko botoen heren bat baino gehiago eskuratzen baditu.

5.– Bi hautagai-zerrendaren arteko berdinketa gertatuz gero, bileran eginiko zozketaz erabakiko da.

6.– Bozkatzeko ekitaldian sortutako alderdiak Ikasleen Kontseiluak berak erabakiko ditu. Kontseilua hautaketari lotutako alderdiren bat erabakitzeko ados jartzen ez bada, Idazkaritza Nagusiak egokitzat jotzen duen erabakia hartuko du, irizpide objektiboak eta zuzentasunekoak kontuan hartuta.

33. artikulua.– Publizitatea.

1.– Hauteskunde-prozesua amaitu ondoren, hautaketaren espedientearen kopia bat bidaliko zaie atalari, ikastegiari, campusari edo UPV/EHUko Errektoregoari –ikasleen kontseiluaren arabera–, Idazkaritza Nagusiari eta Ikasleen Errektoreordetzari, prozesuaren berri izateko eta gainerako ondorioetarako.

2.– Espedientean jasota geratuko dira deialdia, aurkeztutako hautagai-zerrendak, eta bileraren akta, organoaren idazkaritza bere gain hartutako pertsonak sinatuta, kontseiluburuaren oniritziarekin.

3.– Hauteskunde-prozesuaren emaitzak dagokion Ikasleen Kontseiluko iragarki-oholetan jakinaraziko dira.

34. artikulua.– Kontseiluburuaren egitekoak.

Kontseiluburuaren egitekoak honako hauek izango dira:

1.– Dagokion Ikasleen Kontseiluari deitzea eta hura gidatzea, eta horren ordezkari izatea UPV/EHUko gainerako organoen aurrean eta gainerako erakunde publiko edo pribatuen aurrean. Arautegi honen 47.5) eta 44.1.g) eta 41.16) artikuluetan aipatutako proposamenak edo ekimenak eztabaidatzeko eta, hala dagokio, onartzeko, Presidentetzak Ikasleen Kontseilua biltzeko deialdia egin ezean, Ikastegiko Idazkaritzak, Campusekoak edo ikasleen gaietarako Errektoreordetzak – Ikasleen Kontseiluaren eremuaren arabera– deialdia egingo du hilabeteko epean edo, urgentzia justifikatuz gero, 10 eguneko epean.

2.– Eztabaidak moderatzea eta gidatzea, eta Ikasleen Kontseiluaren barruko mintzaldiak arautzea, Arautegi honen arabera eta, egonez gero, onartutako garapen-arauen arabera.

3.– Parte hartzen duen lan-batzordeen lana bultzatzea, koordinatzea, zuzentzea eta gidatzea, eta Ikasleen Kontseiluko beste kide bat uztea horien buru.

4.– Aktak eta Ikasleen Kontseiluak igorritako dokumentu guztiak sinatzea eta ontzat ematea.

5.– Ikasleen Kontseiluaren erabakien ildoak aplikatzea eta horiek gauzatzea. Aurrekontua egiteko lana eta gastuaren exekuzioa zuzentzea, aurrekontuaren onarpena eta kontrola Kontseiluaren onarpenaren menpean jarrita.

6.– Ikasleen eskubideak errespetatzen direla zaintzea.

7.– Ikasleen Kontseiluak emandako beste egiteko batzuk.

35. artikulua.– Kontseiluburu izateari uztea.

Kontseiluburu izateari utziko zaio, Arautegi honen 16. artikuluan aurreikusitako kausak gertatuz gero eta zentsura-mozio bat onartuz gero. Horretarako, kideen heren baten ekimenez dagokion Ikasleen Kontseiluak ezohiko bilera egingo du, eta zentsura-mozioa onartu ahal izango du, Ikasleen Kontseiluko kideen bi herenek ontzat ematen badute. Horren barruan, mozioa onartu daitekeela kontuan hartuta, hautagai-zerrenda bat proposatuko beharko da nahitaez. Zentsura-mozioa onartzearekin batera, kontseiluburuak kargua utziko du, eta mozioan sartutako hautagai-zerrenda izendatuko da.

36. artikulua.– Beste bat hautatzea.

1.– Bat-batean kontseiluburu gabe geratuz gero eta horren ordezkoa izan ezean, Ikasleen Kontseiluko kide zaharrenak hartuko du kargua behin-behineko egoeran, eta, berehala, beste kontseiluburu bat hautatzeko prozedura jarriko du martxan, Arautegi honek ezarritakoaren arabera. Aipatutako hauteskunde-prozesuaren ondoren hautatzen den kontseiluburuaren agintaldiak iraungo du utzi duen kontseiluburuari agintaldia amaitzeko geratzen zitzaien denbora-tartea igaro arte.

2.– Ez da bidezkoa izango hauteskunde partzialak deitzea, eskolarik gabeko aldietan edo organoa berritzeko hiru hilabete baino gutxiago geratzen direnean.

BOSGARREN ATALA

IDAZKARIA ETA DIRUZAINA

37. artikulua.– Idazkariaren egitekoak.

Ikasleen Kontseiluko idazkariaren egitekoak hauek izango dira:

1.– Kontseiluaren fede-emailearena egitea, kontseiluburuaren oniritziarekin, eta Kontseiluko bilkuren aktak jasotzea eta sinatzea, baita dagokion Ikasleen Kontseiluko buruak haren laguntza eskatzen duen edozein bilerarenak ere.

2.– Kontseiluko artxiboen, liburuen, zigiluen eta erregistroaren zaintzaz eta erabilera egokiaz arduratzea.

3.– Lan-batzordeen lanen ondorioz sortutako txostenak, dokumentuak eta aktak antolatzea eta sailkatzea.

4.– Ikasleen Kontseiluak ematen dizkion beste egiteko batzuk.

38. artikulua.– Diruzainaren egitekoak.

1.– Diruzainak Kontseiluaren administrazio eta kudeaketa ekonomikoa egingo du.

2.– Kontseiluko diruzainaren egitekoak honako hauek izango dira:

a) Ikasleen Kontseiluko kontabilitatea eta kontu-liburuak eramatea.

b) Ikasleen Kontseiluaren ondare ekonomikoa zaintzea eta babestea, eta dagozkion partida ekonomikoak administratzea, kontseiluburuaren gidaritzapean.

c) Ikasleen Kontseiluaren jarduera ekonomikoen erantzukizuna hartzea.

d) Ikasleen Kontseiluak ematen dizkion beste egiteko batzuk.

II. KAPITULUA

UPV/EHU-KO IKASLEEN KONTSEILUA

39. artikulua.– Izaera.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua ikasleak ordezkatzeko eta koordinatzeko organo gorena da, unibertsitateko maila guztietan, UPV/EHUko Estatutuen 20. artikuluaaren arabera.

2.– Ikasleen Kontseiluaren egoitzak eta aretoak UPV/EHUK horretarako utzitako lokaletan kokatuko dira, Ikasleen Kontseiluaren iritzia entzun ondoren.

40. artikulua.– Osaera.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua, ikasleen ordezkari-organoa, modu parekidean banatutako hamar (10) kidek osatuko dute, zenbakizko zentzu hertsian. Hala, horietako bost (5) campusetako ikasleen kontseiluetako ordezkariak izango dira, eta gainerako bostak (5), berriz, Gobernu Kontseiluko ikasleen ordezkariak. Campusetako ikasleen kontseiluetako ordezkari bana hautatuko da Campus bakoitzeko, eta Campuseko Ikasleen Kontseiluko buruak izan beharko du. Beste bi ordezkariak dagokienez, bat Bizkaiko Campusari emango zaio, eta bestea Gipuzkoako

Campusari, eta campus horietako ikasleen kontseiluek hautatuko dituzte pertsona horiek, beren kideen artean.

2.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideen agintaldiak iraungo du Gobernu Kontseiluko ikasleen ordezkariak berri arte, campusetako kontseiluko kideen agintaldia bukatu arte, edo dagokion campuseko ikasleen kontseiluak ordezkariak berri arte, kolektibo horri dagozkion hauteskundeak amaitu ondoren.

3.– Campusetako ikasleen kontseiluek eta Gobernu Kontseiluko ikasleen ordezkariak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan dituzten ordezkariak aldatu ahal izango dituzte, edozein unetan.

41. artikulua.– Egitekoak.

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren egiteko nagusiak honako hauek izango dira:

1.– UPV/EHUren ikasleak ordezkatzeko beren interesekoak izan daitezkeen gai orokor guztietan, eta, horren harira, talde horrek onartutako solaskide gisa jardutea.

2.– Campusetako ikasleen kontseiluak koordinatzea eta, oro har, ikasleen kontseilu guztiek dagozkien eremuetan UPV/EHUko ikasleen eskubideen eraginkortasuna modu koordinatuan defendatzen dutela zaintzea.

3.– Ikasleen jarduera-ildo orokorrak proposatzea unibertsitatearen eremuan, eta horiek aurrera eramatea, ikasleen eskubideen defentsa eta aplikazioa zainduta, horiek betetzea eskatuta, horietan gehiago sakontzeko lan eginda, eta ikasleen baldintza orokorrak hobetzeko ekimenak sustatuta eta bultzatuta.

4.– UPV/EHUko aurrekontuetan esleitutako aurrekontuaren banaketa erabakitzea, eta Unibertsitateak Kontseiluari esleitutako aurrekontuen exekuzioa onartzea eta kontrolatzea. Era berean, diruzainak eginiko proposamenaren arabera, urteko aurrekontuaren % 5 gainditzen duten funts eskuragarrien aplikazio zehatzerako aldeko txostena egingo du, gero Ikasleen Errektoreordetzaren aurrean justifikatzeko.

5.– UPV/EHUko ikasleei zuzenean eragiten dieten unibertsitateko arautegiak onartu aurretik, haren iritzia entzutea, eta alegazioak aurkezteko aukera izatea. Batez ere, haren iritzia entzun beharko da, Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko Ikasleen Arautegi hau eta Diziiplina Araubidearen Arautegia onartu aurretik.

6.– Ikasleei eragiten dieten gatazken ekimenak eta erabakiak kudeatzea, bere eskumenen esparruan, eta etenaldi akademikorako deialdia egitea UPV/EHUn.

7.– Emandako irakaskuntzari eta ikasketei lotutako arazoak instantzia eskudunei jakinaraztea, eta, hala behar izanez gero, Ikuskaritza Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea, ikasleen irakaskuntzako eskubideak bermatzeko neurriak ezartzeko.

8.– Kontseiluburua hautatzea, eta, hala behar izanez gero, horren aurkako zentsura-mozio erakitzailea onartzea.

9.– UPV/EHUn emandako ikasketen eta irakaskuntzen kalitatea zaintzea, bai eta ikasleen prestakuntza intelektuala, kritikoa, soziala, profesionala, zientifikoa eta kulturala ere, tituluen ezagutza kontuan hartuta.

10.– Ikasleen ordezkariari lana egiteko laguntza, babesa eta koordinazioa eskaintzea, unibertsitatearen edozein instantzian.

11.– Ikasleei bideratutako bekak eta bestelako laguntzak emateko irizpideak finkatzeko zeregi-
netan parte-hartzea, baldin eta deialdietan horrela zehazten bada.

12.– Unibertsitate-hedakuntzaren antolakuntzan parte hartzea, eta, oro har, unibertsitateko
kideen kultura-, arte- eta kirol-jarduerekiko interesa piztea, horretara bideratutako lanak babestuz
eta bultzatuz.

13.– Ordezkatzen dituzten pertsonen informazioa ematea, eskura dituzten bitartekoen bidez.
Batik bat, gobernu-organoei eta ikasleen ordezkari-organoei hartutako erabakiak jakinarazi
eta zabalduko dituzte, ikasleentzat garrantzia dutenean.

14.– Ikasleen parte-hartzea bultzatzea. Batik bat, ikasleen taldeko antolakuntza bultzatuko
du, eta horren alde lana egingo, eta bere ordezkarien jarduerak sustatu eta koordinatuko ditu,
gobernu-, ordezkari- eta partaidetza-organoei, dagokien jardueren eremuan.

15.– Parte-hartzeko organoetako ikasleen ordezkariak hautatzea, UPV/EHUtik kanpoko instan-
tziatan.

16.– Eztatzea, eta, gutxienez, hiru ikastegi-taldeen ikasleen kontseiluek, campuseko ikasleen
kontseilu batek edo UPV/EHU matrikulatutako ikasleen % 5ak aurkeztutako ekimenak onartzea,
hala behar izanez gero.

17.– Arautegi honen osagarri izango den barne-funtzionamendurako araudia onartzea.

18.– Ikasleen Kontseiluari esleitutako espazioak erabiltzeko araudia ezartzea, indarrean dagoen
araudiaren esparruan, UPV/EHUk Ikasleen Kontseiluari utzitako baliabideen, ondasunen, instala-
zioen eta lokalen erabilera zuzena zainduta.

19.– UPV/EHU mailako etenaldi akademikorako deialdia egitea, Arautegi honek ezarritako
baldintzetan.

20.– UPV/EHUko ikasleei eragiten dieten alderdiei buruzko adierazpenak egitea.

21.– Arautegi honek eta gainerako araudiek ematen dizkieten gainerako egiteko guztiak.

III. KAPITULUA

CAMPUSEKO IKASLEEN KONTSEILUAK

42. artikulua.– Izaera.

Campuseko Ikasleen Kontseilua Campuseko ikasleak ordezkatzeko dituen kide anitzeko orga-
noa da, eta ikasleen ordezkari-koordinatzaile du, dagokion Campusaren esparruan.

43. artikulua.– Osaera.

1.– Campuseko Ikasleen Kontseilua osatuko dute Campus horren Irakaskuntza Ikastegi bakoit-
zko ikasleen ordezkari batek eta Gobernu Kontseiluan Campus horrek dituen ikasleen ordezkariak.
Arautegi honen ondorioetarako, Giza Zientzietako titulua (Esperientzia Gela) ikastegitzat hartuko
da Campus bakoitzean, eta ordezkari bana izango du campusetako ikasleen kontseiluetan.

2.– Campuseko ikasleen kontseiluan, ikastegi bakoitzaren ordezkaria ikastegiko ikasleen kon-
tseiluko burua izango da, baldin eta campusekoa bada, edo kontseiluko edo ataleko kideen artean
horren ordezkari hautatutako pertsona.

44. artikulua.– Egitekoak.

1.– Campuseko ikasleen kontseiluak honako egiteko hauek izango ditu:

- a) Hautatzea, hala behar izanez gero, UPV/EHUko Ikasleen Kontseilurako ordezkariak.
 - b) UPV/EHUren aurrekontuetan esleitu zaion aurrekontua nola banatu behar den erabakitzea.
 - c) Campusean kokatutako ikasleen kontseiluetako jarduerak koordinatzea, babestea eta bultzatzea.
 - d) Ikasleei eragiten dieten ekimenak eta gatazken gaineko erabakiak kudeatzea, bere eskumeneen esparruan.
 - e) Ikuskaritza Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea, ikasleen irakaskuntzako eskubideak bermatzeko neurriak jartzeari begira.
 - f) Berezko laguntzak onartzea, bere aurrekontuaren kargura.
 - g) Eztabaidatzea, eta, hala behar izanez gero, ikastegietako ikasleen kontseiluek edo Campus horretan matrikulatutako ikasleen % 5ek aurkeztutako ekimenak onartzea.
 - h) Campuseko ikasleei zuzenean eta modu eskusiboan eragiten dieten unibertsitateko arau guztiak onartu aurretik, haren iritzia entzutea, eta alegazioak aurkezteko aukera izatea.
 - i) Etenaldi akademikoa egitea erabakitzea, bere jarduera eremuan.
 - j) Soil-soilik Campuseko ikasleei eragiten dieten gaietarako buruzko adierazpenak egitea.
 - k) Estatutuek, Arautegi honek eta gainerako araudiek emandako beste egiteko batzuk.
- 2.– Campus bakoitzak, UPV/EHUko organo orokorrekin lankidetzan, Campus horren Ikasleen Kontseiluak bultzatutako jarduerak antolatzen eta egiten lagundu behar du.

IV. KAPITULUA

IKASTEGIKO EDO ATALEKO IKASLEEN KONTSEILUA

45. artikulua.– Izaera eta araubide juridikoa.

1.– Ikastegiko edo Ataleko Ikasleen Kontseilua Ikastegiko edo Ataleko ikasleak ordezkatzeko kide anitzeko organoa da.

2.– UPV/EHUko Estatutuen 22.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, kapitulu honek eta titulu honen lehenengo kapituluak jasotako Xedapen Orokorrak Oinarrizko Arautegiak izango dira ikastegi edo ataletako ikasleen kontseiluetarako.

46. artikulua.– Osaera.

1.– Ikastegi edo Atal bakoitzeko Ikasleen Kontseilua Ikastegiko Batzarreko, egoitzako batzordeko edo ataleko batzarreko ikasleen ordezkariak osatuko dute. Arautegi honen ondorioetarako, Giza Zientzietako titulua (Esperientzia Gela) bere barne-araudiaz gidatuko da eta ordezkari bat hautatuko du tokian tokiko campuseko ikasleen kontseiluan.

2.– Ikastegiko edo Ataleko Ikasleen Kontseiluko kide bakarreko organoak kontseiluburua, idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina izango dira.

3.– Ikastegi edo ataleko ikasleen kontseiluko burua ikastegiko batzarreko, egoitzako batzorde edo ataleko batzarreko ikasleen ordezkariak hautatuko dute bere kideen artean, ikastegi edo ataleko ikasleen kontseilu gisa eratu ondoren.

4.– Kontseiluburua edo ikastegi edo ataleko ikasleen kontseiluko kideen artean horrek hautatutako pertsona zein bere campuseko ikasleen kontseiluan sartuko da.

5.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko burua horren ordezkaria izango da, ikastegiko edo ataleko gobernu-organoen aurrean, bai eta unibertsitateko gainerako instantzien aurrean ere, soil-soilik ikastegi edo atalari eragiten dizkioten gaietan.

6.– Ikastegiko edo Ataleko Ikasleen Kontseiluko buru izateko hautagai-zerrendan idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina proposatuko dira.

47. artikulua.– Egitekoak.

Ikastegiko edo Ataleko Ikasleen Kontseiluak honako egiteko hauek izango ditu:

1.– UPV/EHUren aurrekontuetan esleitu zaion aurrekontua nola banatu behar den erabakitzea.

2.– Ikasleak ordezkatzera, Ikastegi edo ataleko organoetan.

3.– Ikasleen eskubideak betetzeko eskatzea eta zaintzea.

4.– Dagozkien organoetan ikasleen ordezkariak izendatzea, hau da: sailetan, graduako eta ikasketak zaharren –biak batera ematen diren bitartean– lehen eta bigarren zikloetan, eta, hala behar izanez gero, masterrean.

5.– Eztabaidatzea, eta, hala behar izanez gero, ordezkarien % 20k edo ikastegi edo atalean matrikulatutako ikasleen % 5ek aurkeztutako ekimenak edo proposamenak onartzea.

6.– Etenaldi akademiko osorako edo partzialerako deialdia egitea bere Ikastegi edo atalan.

7.– Irakasleen ebaluazioaren emaitzak eskatzea eta jasotzea, modu erantsian.

8.– Soil-soilik Ikastegi edo ataleko ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko adierazpenak egitea.

9.– Arautegi honek eta gainerako araudiek emandako beste egiteko batzuk.

V. ATALA

BATZORDE PAREKIDEA

48. artikulua.– Batzorde parekidea.

1.– Batzorde Parekide bat eratuko da, aholkularitza-organo gisa, eta ikasleen interesei zuzenean eragin diezaieketen gaiak aztertzeko bilduko da. Batzorde hori ikasleen eta errektorearen gobernu-taldearen arteko informazio-bidea izango da, eta aholkularitza eta babesak eskainiko ditu. Haren txostenak ez dira nahitaezkoak eta lotesleak izango.

2.– Parekidetasunez osatuko dute kontseiluburuak hautatzen dituen UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideek eta errektorego-taldeko ordezkariak. Horien artean, nahitaez egongo dira ikasleen gaietarako eskumenak dituen errektoreordea eta azertu beharreko gaiari buruzko eskumenak dituen errektoreordea.

3.– Batzordea, gutxienez, sei hilabetean behin bilduko da, baina maizago biltzeko aukera izango du, kideen herenak hala eskatzen badu.

IV. TITULUA

IKASLEEN ELKARTEAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

49. artikulua.– UPV/EHU-ko ikasleen elkartearen kontzeptua.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen ikasleen elkarteak izango dira Titulu honen arabera eraturako guztiak, eta, partaidetza eta ordezkaritza demokratikoko printzipioen arabera, honako helburu hauek dituztenak: goi mailako hezkuntza, kulturaren sustapena, unibertsitateko eta kulturako ondasunen defentsa, garapen zientifikoa, kulturala eta artistikoa, jarduera profesionaletan aritzeko prestakuntza eta horren antzekoak, UPV/EHUko Estatutuen eta indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoaren arabera.

UPV/EHUko ikasleen elkarteek unibertsitateko organoekin lankidetzan jardun ahal izango dute, zehazten den moduan.

Elkarteen erregistroaz arduratzen den Errektoreordetzak horien barne-sailkapena egin ahal izango du.

50. artikulua.– Araubide juridikoa.

Ikasleen elkarteak beren estatutuen, Arautegi honen eta aplikagarri zaizkion gainerako araudien bidez arautuko dira.

Arautegi honetatik kanpo geratzen dira elkarte alderdikoiak, erlijiosoak eta irabaziak lortzeko asmoak dituztenak, baita UPV/EHUren helburuen kontra daudenak edo unibertsitateko kideen eskubideren bat urratzen dituztenak ere.

II. KAPITULUA

JARDUERA EREMUA, PARTE HARTZEKO BETEBEHARRAK, EGOITZA ETA LOKALAK

51. artikulua.– Jarduera eremua.

Ikasleen elkartearen jarduera eremua UPV/EHU da. Elkarteek ikastegi batean edo hainbat ikastegitan jardungo dute, eta, hala behar izanez gero, unibertsitateko beste egitura batzuetan. Unibertsitate eremutik kanpo jarduerak egin ahal izango dituzte; betiere, horiek modu egokian egin badaitezke.

52. artikulua.– UPV/EHU-ko ikasleen elkarte gisa onartua izateko gutxieneko baldintzak.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Elkarte gisa aitortua izateko, beharrezkoa izango da aldez aurretik izena ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erroldan edo beste Elkartearen Errolda Publiko batean.

2.– Era berean, UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa aitortua izateko, elkarteak, gutxienez, 5 kide izan beharko ditu, eta errespetatu beharko du, edonola ere, honako osaera hau:

- a) Elkarteko kide guztien % 70, gutxienez, UPV/EHUko ikasleak edo ikasle ohiak izango dira.
- b) Edonola ere, elkarteko kideen % 40k UPV/EHUko ikasleak izan beharko dute.

3.– Zuzendaritza Batzordeko kideek ere errespetatu beharko dute gorago aipatutako UPV/EHUko ikasle eta edo ikasle/ohien ehunekoa.

Halaber, zuzendaritza batzordeko kideak ezin izango dira izanaldi berean honen pareko gizarte helburua edo helburu bera lukeen ikasleen beste elkarte bateko zuzendaritza batzordeko kide.

4.– UPV/EHUko ikasletzat hartuko dira titulu ofizialak, berezko tituluak, edo bizitzan zeharreko prestakuntzako beste ikasketa espezifiko batzuk eskuratzeko matrikulatuta dauden pertsona guztiak.

53. artikulua.– Egoitza soziala.

UPV/EHUK onartutako ikasleen elkarteek UPV/EHUn izango dute beren egoitza soziala. Salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, egoitza soziala UPV/EHUtik kanpo edukitzea onartuko da; alabaina, ohartarazpenak UPV/EHUn posta-kutxan egingo dira. Egoitza sozialaren aldaketa ikasleen gaietarako eskumenak dituen Errektoreordetzari jakinaraziko zaio, eta honek onartu egin beharko du.

III. KAPITULUA

UPV/EHU-KO IKASLEEN ELKARTE GISA ONARTUA IZATEKO PROZEDURA ETA IZEN-EMATEAN SORTUTAKO ESKUBIDEAK

54. artikulua.– UPV/EHU-ko ikasleen elkartearen erregistroan izena ematea.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Elkartearen Erregistroan izena eman ahal izateko, elkarteek aldezturik izena emanda egon beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erroldan edo izaera publikoko beste Elkartearen Erregistroren batean.

2.– Ikasleen Errektoreordetzaren menpekora den UPV/EHUko Elkartearen Erregistroan izena emateko, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Elkartea EAEren Elkartearen Erroldan edo izaera publikoko beste Elkartearen Erregistroren batean izena emanda dagoela erakusten duen ziurtagiriaren kopia bat.

b) Elkartea osatzen duten pertsonen kopurua. UPV/EHUko ikasle diren bazkideen zerrenda eta, hala behar izanez gero, UPV/EHUko ikasle ohiaren zerrenda, izena, abizenak eta NAN zenbakia berariaz adierazita.

c) Zuzendaritza Batzordearen osaera, eta batzordekideen kokalekua, telefonoa eta haiekin harremanetan jartzeko helbidea.

d) Dagokion Ikastegiaren edo Campusaren txostena, elkartearen egoitza ikastegi batean edo UPV/EHUko lokal batean jartzeko. Era berean, aurreko artikuluan aurreikusitakoak jasoko dira txosten horretan. Eskaera aurkeztu eta hilabete bateko epean aipatutako txostena aurkeztu ezean, letra honen eskakizuna gainditzeko nahikoa izango da behar bezala erregistratutako eskaera aurkeztea.

e) Elkartearen jarduera eremuaren arabera, dagokion Ikasleen Kontseiluaren txostena. Eskaera aurkeztu eta hilabete bateko epean aipatutako txostena aurkeztu ezean, letra honen eskakizuna gainditzeko nahikoa izango da behar bezala erregistratutako eskaera aurkeztea.

f) Jarduera-egitaraua.

g) UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan izena emateko eskaera normalizatua.

3.– Prozedura amaituko da UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan izena ematean edo ikasleen gaietarako eskumenak dituen Errektoreordetzak erregistroa ukatzeko hartutako erabaki arrazoitua jasotzean. Bi kasuetan eskatzaileari jakinaraziko zaio, gehienez hiru hilabeteko epean, aurreko ataleko g) letran aurreikusitako UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan izena emateko eskaera normalizatuan horretarako adierazitako lekuan.

4.– UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan izena ematea ukatzen duen erabakiaren aurka gorako errekurtoa jarri ahal izango da errektorearen aurrean, hilabeteko epean.

55. artikulua.– Izena ematean sortutako eskubideak.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Elkarteen Erregistroan izana emateak webgune bat, helbide elektronikoa bat, ohiko posta jasotzeko postontzia eta unibertsitateko gune batean armairu itxi bat izateko eskubidea ematen du, ahal delarik Ikasletxe batean.

2.– Ikastegi eta campusetako premien memoriek gune bat aurrekusi beharko dute, dagokion eremuan aldi berean egon daitezkeen elkarreentzako.

3.– Elkarte hauek egiten dituzten jarduerak eta horietan parte-hartzea diruz lagundu ahal izango dira, ezarritako baldintzetan, baldin eta ikasleek berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioa errespetatuz parte hartzen badute. UPV/EHUK horretarako partidak bideratuko ditu bere aurrekontuetan.

IV. KAPITULUA

UPV/EHU-KO IKASLEEN ELKARTE IZAERARI EUSTEA

56. artikulua.– UPV/EHU-ko ikasleen elkarte izateari eustea.

1.– UPV/EHUko ikasleen elkarte izaten jarraitzeko, elkarteek UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan izena emateko eskakizunak betetzen jarraitu beharko dute. Horren harira, elkarte guztiek, bi (2) urtean behin eta lehen lauhilekoan, ikasleen gaietarako eskumenak dituen Errektoreordetzari honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkiote:

a) Elkarreentzako aurreko bi ikasturteetan egindako jarduerari buruzko memoria bat, non bereziki nabarmenduko diren unibertsitate-organoren batek diruz lagundutako jarduerak edo proposamenak.

b) Elkarteko burua, idazkaria eta Zuzendaritza Batzordeko kideak UPV/EHUko ikasleak direla erakusten duten dokumentuak. Era berean, bazkide guztien zerrenda eguneratua aurkeztu beharko da. UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa erregistratuta egoteari eusteko, Arautegi honen 52. artikulua ezarritako gutxieneko eskakizunak bete beharko dira.

Elkartearen liburuak agintaritzak akademikoaren eta publikoaren esku egongo dira.

2.– Estatutuetan edo zuzendaritza-batzordean eginiko aldaketa guztiak ikasleen gaietarako eskumenak dituen Errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, hilabeteko epean, eta honek Arautegi

honekin bat datozen egiaztatuko du. Aldaketak Arautegira egokitzen ez badira, izen-ematea ezeztatzeko prozedura hasiko da.

57. artikulua.– Ez-betetzea.

Titulu honen aurreikuspen baten bat bete ezean, elkarteak ohartarazteko espediente bat irekiko da, eta hilabeteko epea emango zaio, aurkitutako akatsak zuzen ditzan. Epe hori igarota akatsak zuzendu ezean, elkarteak ezin izango du UPV/EHUren laguntzarik eskatu, urtebetean. Hurrengo ikasturtearen lehenengo lauhilekoan akatsak ez badira zuzendu, UPV/EHUko Elkartearen Erregistroan behin betiko baja emango zaio elkarteari, eta, horrekin batera, aitortutako eskubideak galduko ditu, baita, hala balitz, emanak izan ditzakeen laguntzak ere.

V. KAPITULUA

IKASLEEN ELKARTEETAN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

58. artikulua.– Jarduerak.

1.– Unibertsitateko bizitzan parte hartzeko, ikasleen elkarteek beren intereseko jarduerak egingo dituzte, Estatutuen 4. artikuluan aurreikusitako UPV/EHUren helbururen bat lortze aldera.

2.– Parte-hartzea, batez ere, elkarteek antolatutako jarduera zientifiko, kultural, artistiko edo bestelakoen bidez bideratuko da, eta jarduera horiek baliagarriak izango dira ondare intelektuala, humanistikoa, kulturala eta zientifikoa aberasteko, bai eta ikasleen eta, oro har, euskal gizartearen ongizatea, prestakuntza osoa eta garapena bultzatzeko ere.

3.– Ikasleen elkarteek UPV/EHU eta kanpoan eginiko jarduera mota guztiek antolamendu juridikoa erabat errespetatu beharko dute. UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa deitutako jarduera guztien berri emango zaio UPV/EHUri, eta, hala behar izanez gero, hark baimendu beharko ditu. Arautegi honen 57. artikuluan aurreikusitakoaz gainera, antolamendu juridikoaren arau-hauste larrien eraginez jasotako zigor irmo batek edo antolamendu juridikoaren arau-hauste arinen eraginez jasotako bi zigor irmok edo gehiagok UPV/EHUko ikasleen elkarte izatearen galera eragingo dute.

4.– UPV/EHUren lurralde eremuan, elkarteko kideei edo jende guztiari bideratutako edozein jarduera egin aurretik, UPV/EHUko ikasleen elkarteek okupatu nahi dituzten guneak erabiltzeko baimena eskuratu beharko dute, Titulu honetan ezarritako baldintzetan.

59. artikulua.– Ikasleen erakundetan parte-hartzea.

1.– UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa erregistratutako elkarteek sareetan edo konfederazioetan sartzeko eskubidea izango dute, edozein arlotan.

2.– UPV/EHUK laguntza emango du, dagokion eskumenen esparruan eta eskura dituen bitartekoaren arabera, ikasleen elkarteak erakunde horietan sar daitezela.

VI. KAPITULUA

IKASLE OHIEN ELKARTEAK

60. artikulua.– UPV/EHU-ko ikasle ohien elkarteak.

1.– UPV/EHUko ikasle ohien elkartetzat hartuko dira Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle izandako 5 kide dituztenak, baldin eta kide horiek elkartekide guztien % 70 badira. Horrez gain, Arautegi

honen 52. artikuluan eskatutako baldintzak bete, eta 49. artikuluan aurreikusitako helbururen bat lortzeko xedea izan beharko dute. Zuzendaritza Batzordeko kideek, edonola ere, Unibertsitateko ikasle ohiak izan beharko dute, eta ezin izango dute aldi berean beste ikasleen edo ikasle ohien elkarte bateko Zuzendaritza Batzordeko kideak izan.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ikasle ohiak izango dira UPV/EHUren titulu ofizialen bat edo berezko tituluren bat dutela egiaztatzen duten pertsonak.

2.– UPV/EHUko ikasle ohien elkarteek unibertsitate honen irudia sustatuko dute, eta lankidetzan jardungo dute, egresatuak lan arloan sartzeko, ikasle berriak prestatzeko, eta jarduerak antolatzeko, bai kulturalak bai interes sozialekoak. Ikasle ohien elkarteek unibertsitatea xede duten mezenasgo-jarduerak bultzatuko dituzte, baita unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturak areagotzeko baliagarriak diren beste jarduera batzuk ere.

3.– UPV/EHUK laguntza emango du, ikasle ohien elkarteak nazioartean hedatzeko, horien arteko sareak garatzeko eta unibertsitateen arteko jarduerak egiteko. Honen inguruan, UPV/EHUK ehualumni egitura sortu du, lehengo ikasleen arteko sare gisa.

4.– Unibertsitateak eskura dituen bitartekoen arabera, ikasle ohien elkarteek Arautegi honen 55. artikuluan aurreikusitako eskubideak izango dituzte, horiek ikasleen elkarteei bermatu ondoren. Dena den, elkarte horiek bultzatzeko beste neurri batzuk ere hartu ahal izango dira.

5.– Gainerakoan, ikasle ohien elkarteei Titulu honetan adierazitakoa aplikatuko zaie, V. kapituluaren ezarritakoa izan ezik. Era berean, 4 urtean behin egiaztatu beharko dute izena emanda egoten jarraitzeko eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

V. TITULUA

IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA ETA EBALUAZIOA

I. KAPITULUA

IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA

61. artikulua.– Irakaskuntzaren plangintzaren publizitatea.

Ikasturte bakoitzeko matrikulazio-epaia zabaldu aurretik, ikastegi bakoitzak bertako tituluen plangintzaren publizitatea egingo du. Publizitate horrek jaso beharko ditu, gutxienez, ikasle bakoitzak ikasketei eta ikaskuntzari eskaini beharreko arduraldia ECTS terminoetan adierazita, aurreikusitako irakasleak, irakasgai edo gai bakoitzaren ordu-banaketa, eta irakasgai edo gaien irakaskuntza-gidak, ebaluazioaren sistema eta ezaugarriak berariaz aipatuta.

62. artikulua.– Tutoretzak.

1.– Ikasleek banakako laguntza eta orientazioa jasoko dituzte, beren ikaskuntza-prozesuan, ikasturtean zehar gauzatuko diren tutoretza-saioen bidez. Tutoretza-saioen ordutegia lauhileko bakoitza hasi aurretik argitaratu beharko da.

2.– Ikasleek tutoretza jasotzeko aukera izango dutela bermatzeko, irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko Arautegiko 15. artikuluan (EHAA, 2011ko apirilaren 26a, 78. zk.a), edo horren ordezkoi arautegian ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

3.– Tutoretza-programak eta tutoretza-jarduerak ahalmen urriko ikasleen premietara moldatu beharko dira, eta horretarako, sailek edo ikastegiekin, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak koordinatuta eta gainbegiratuta, egin beharreko metodologia-egokitzapenak egingo dituzte, eta, hala behar izanez gero, tutoretza-saio espezifikoak ezarriko dituzte, ikasleen premien arabera. Tutoretza-saioak toki irisgarrietan egin beharko dira, ahalmen urriko ikasleen premiak kontuan hartuta.

II. KAPITULUA

IKASLEEN EBALUAZIOA

63. artikulua.– Printzipio orokorrak.

UPV/EHUko Estatutueta 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, titulu honek ikasleak ebaluatzeko araudiak errespetatu beharreko printzipioak ezarriko ditu, ikasleek ikasketetan duten errendimendua era objektiboan ebaluatuko dela eta kalifikazioak berrikusteko eskubidea bermatuko dela ziurtatzeko. Xede horrekin, ikasleek ikasketetan izandako errendimenduaren ebaluazioa irizpide publiko eta objektiboan arabera egingo da, eta, ahal denean, etengabeko ebaluazioa egingo da; izan ere, etengabeko ebaluazioa hezkuntzaren erantzunkidetasunerako bitartekoa da, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren elementu bat, ikasle bakoitzari bere ikaskuntza-prozesuaren berri ematen diona.

64. artikulua.– Ebaluazio-metodoak.

1.– Ikasleen gaitasunak eta ezagutzak ebaluatzeko, irakasleak etengabeko ebaluazioaz, amaierako ebaluazioaz edo ebaluazio mistoaz (bien konbinazioa) balia daitezke. Nolanahi ere, ahal denean etengabeko ebaluazioa egingo da.

Gardentasuna eta ekitatea bermatzearen, ebaluazio-sistema edo -tresna bakoitzean erabilitako ebaluazio-irizpideak argi eta garbi azaldu eta argitaratu beharko dira.

Edonola ere, ebaluazioa egin aurretik ezarritako irizpideen arabera egin beharko da beti.

2.– Etengabeko ebaluazioaren, azken ebaluazioaren eta ebaluazio mistoaren kontzeptuak:

a) Etengabeko ebaluazioa. Etengabeko ebaluazioa prozesu, tresna eta estrategia didaktikoen multzo bat da, irakaskuntza-gidetan definitzen dena eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar modu progresiboan aplikatzen dena. Ebaluatzeko sistema eta tresna horiek askotarikoak izan daitezke: jardueretan parte hartzea, praktikak, ahozko edo idatzizko lanak, kasuei buruzko txostenak, proiektuen garapena, problema ireki eta praktikoen ebazpena, irakaskuntza-karpetak, edo beste-lako ebaluazio-probak. Edonola ere, gaitasun espezifiko eta zeharkako gaitasun guztien garapena bermatu behar dute, eta irakasgaiaren irakaskuntza-gidan jaso behar dira.

b) Azken ebaluazioa. Arrazoi justifikatuak izanda (lana, genero-indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo hiru urtetik beherako seme-alabak zaindu behar izatea, mendeko senitar-tekoen zaintzaileak, % 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna duten ikasleak, goi mailako kirolariak, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoak edo kulturalak, goi mailako beste ikasketa batzuekin bateratzeko beharra, politika, sindikatu, ikasleen ordezkariak, elkarte, GKE eta abarretan bete beharreko karguak), etengabeko ebaluazioaren sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra egin ahal izango dute, irakasgaiari edo gaiari dagozkion gaitasunak eta ezagutzak egiaztatzeko, eta proba hori irakasgaiari edo gaiari dagokion notaren % 100 biltzeko moduan eratuko da.

Irakasgaiaren edo gaiaren izaera eta edukiak direla-eta, beste maila batzuk egiaztatu behar badira, hala nola praktikak modu egokian egitea, amaierako proba osatu ahal izango da, maila horiek gainditu izanaren egiaztatze bidez.

c) Ebaluazio mistoa. Irakasgai edo gai bat ebaluazio mistoaren bidez ebaluatu dela ulertuko da, baldin eta gutxienez programaren % 30 etengabeko ebaluazio-sistemaren bidez ebaluatzen bada. Etengabeko ebaluazioa amaierako proba batek osatu beharko du, unibertsitateko egutegi akademikoan ezarritako epearen barruan. Ebaluazio mota bakoitzak ebaluatzen duen programaren ehunekoaren arabera pisua izango du.

65. artikulua.– Ebaluazio-proben egutegia.

1.– Probak egiteko egutegia, ordutegia eta tokiak, ahozko probenak barne, eskumena duen organoak erabakiko ditu, betiere ikasleen parte-hartzea bermatuta eta Arautegi honetan kontuan hartu diren egoera berezietan arreta jarrita.

2.– Ebaluazio-sistemak programatzeko garaian, kontuan hartuko da ikasle batek ezin dituela maila bereko irakasgai edo gai desberdinetako proba orokorrak egin hogeita lau ordutik beherako epean, horrela ezarrita baitago EAEko araudian eta UPV/EHUko berezko araudietan. Edonola ere, aipaturiko arautegiaren arabera, ikasleek eskubidea izango dute dagozkion proba orokorrak egun eta ordu berean ez egiteko.

Nahitaezko bi irakasgai edo gairen ebaluazio-probak batera jarri badira, irakasgairen edo gairen bat errepikatzen ari diren ikasleei kalterik ez egiteko, bien artean maila goragokoa den nahitaezko irakasgai edo gaiaren irakasleak beste data bat jarriko du. Nolanahi ere, irakasleak eskatu beharko du eguna aldatzeko, ikasketen gestiorako arautegian ezarritako gutxienezko aurrerapenarekin.

Nahitaezko irakasgai edo gai baten eta hautazko irakasgai baten ebaluazio-probak batera jarri badira, hautazko irakasgai edo gaiaren proba-eguna aldatu beharko da, baldin eta irakasleak hala eskatzen badu.

Bi ebaluazio-proba batera jarri direla ulertuko da, baldin eta proba biak egun berean jarri badira lau ordu baino gutxiagoko tartean.

3.– Ebaluazio-proben programazioa ezin izango da aldatu, ustekabe baten eraginez ezarritakoa betetzea ezinezkoa denean izan ezik. Salbuespenezko egoera horietan, tituluetako arduradunek egin beharreko kontsulta guztiak egingo dituzte dagozkion irakasle eta ikasleekin, bai zuzenean bai haien ordezkarien bidez, eta programazio berria proposatuko dute, gehienez 5 eguneko epean.

4.– Unibertsitateko kide anitzeko ordezkari- edo gobernu-organotako bileretara joateagatik edo kasuan kasuko arautegian aurreikusitako gainerako arrazoiengatik programatutako ebaluazio-probetara joan ezin diren ikasleek eskubidea izango dute proba egiteko, beste egun eta ordu batean. UPV/EHUko kide anitzeko organoen ardura izango da azterketa garaian eta azterketen aurreko egunetan bilerarik ez jartzea.

66. artikulua.– Ebaluazioaren edukia.

1.– Ikasleek ekitatez eta zuzentasunez ebaluatuak izateko eskubidea dute, jasotako irakas-kuntza mailaren arabera. Irakasgaiaren edo gaiaren ebaluazioa ezin izango da egin dagozkion irakasleak eman ez dituen gaiei buruz, irakasgaiaren edo gaiaren hasierako programan gai horiek jasota egon arren.

Ekitatea bermatzearen, irakasgai edo gai bateko irakaskuntza-gidetan ebaluazio-irizpide komunak ezarriko dira ikasle-talde guztietarako, eta saileko kontseiluaren eginkizuna izango da urteko irakaskuntza-eskaintza programatzeko eta ebaluatzeko irizpideak onartzea.

2.– Ebaluazio-probak ahalmen urriko ikasleen premietara egokitu beharko dira, eta horretarako, sailek eta ikastegiek egokitzapenak egin beharko dituzte, metodologiari, denborari eta eremuei dagokienez. Egokitzapen horiek gorabehera, proben edukia eta eguna ez dira aldatuko.

3.– Ebaluazio-proba bat egiteko ordu ofiziala iritsita, lehenengo hamabost minututan deitutako ikasleei sartzeko utziko zaie, baldin eta atzerapena ezinbestean gertatu dela erakusten badute (garraioen greba, meteorologiaren gorabeherak, edo bestelakoak). Une horretan alegatutako kausa egiaztatu ezean, ikasle horri deitu ahal izango zaio gero egoera hori egiaztatzeko. Era berean, hamabost minutu horietan ikasleak ezin izango dira azterketa egiteko ikasgelatik atera.

4.– Ebaluazio-probak egin bitartean, irakasleak edozein unetan eskatu ahal izango die identifikazioa bertaratutako ikasleei, eta horiek ikasle-txartela, nortasun-agiri nazionala, pasaportea, edo, halakorik ezean, ebaluatzailearen iritziz nahikoa den egiaztatzea erakutsi beharko diote.

5.– Ikasleek eskubidea izango dute ebaluazio-probak egin izanaren ziurtagiria jasotzeko, probak amaitu ondoren.

67. artikulua.– Ahozko probak eta probak egiteko erregimena.

1.– Programa litezkeen ahozko ebaluazio-probak publikoak izango dira, eta ikasle bakoitzak bere ebaluazio-proba grabatzeko eskatu ahal izango du.

2.– Ikasleak iruzur egingo balu ariketaren batean, «gutxiegi» kalifikazioa izango luke ariketa horretan, izan litzakeen bestelako erantzukizunez gain.

68. artikulua.– Ebaluazio-lanak eta praktiketako memoriak.

1.– Lanak eta praktiketako memoriak emateko data ikasleekin hitzartuko da, eta proposatzen diren une berean zehaztuko da. Nolanahi ere, ebaluazio-egunak beharrezkoa den aurrerapenez zehaztuko dira; hartara, ikasleak ebaluazio-probara behar adinako bermez aurkezteko eskubidea bete ahal izango du.

2.– Unibertsitateak paper-zorroaren erabilera sustatuko du. Euskarri material bakarra duten praktiketako memoriak eta lanak irakasleak gorde beharko ditu, hurrengo ikasturtea amaitu arte. Ikasketen gestiorako arautegiak kontuan hartu beharreko data ezarriko du horretarako, baita ikasleari emango zaion epea ere, memoriak eta lanak itzultzeko eskatzeko. Epe hori igarotakoan lanak edo memoriak itzultzeko eskatu ez badu edo jaso ez baditu, suntsitu egingo dira.

3.– Aipaturiko lanak eta memoriak xede hertsiki akademikoez bestelako helburuetarako osorik edo zatika argitaratu, erreproduzitu edo erabili nahi badira, egilearen edo egileen berariazko baimena beharko da, jabego intelektualaren legediari jarraiki.

4.– Karrera-amaierako proiektuak, gradu- eta master-amaierako lanak eta doktorego-tesiak dagozkien arautegi espezifikoaren arabera arautuko dira.

5.– Lan horien ondorioz eginiko argitalpenak, bereziki doktoregoari lotutakoak, jabego intelektualaren araudiaren arabera egingo dira.

69. artikulua.– Erantzun zuzenei buruzko informazioa.

Ebaluazioak prestakuntza izaera edukiko du, eta ikasleei informazio eta argibide egokiak eskaini beharko dizkie gaitasunak eskuratzeko mailari buruz eta beren ikaskuntza-prozesuan egin beharreko hobekuntzei buruz. Ebaluazio-proba bakoitzaren ondoren, dagokion saileko irakasleek ebaluazio-proba horretan eginiko galderei emandako erantzun zuzenak jakinaraziko dituzte, ikasleek probari ahal bezainbesteko etekina atera diezaioten.

70. artikulua.— Kalifikazioak, publizitatea eta berrikuspena irakasleen edo ebaluazio-epaimahaiaren aurrean.

1.— Kalifikazioen argitalpena. Talde bakoitzaren arduraduna den irakasleak irakasgaiaren edo gaiaren azken kalifikazioak argitaratuko ditu, ikasketen gestiorako arautegian ezarritako moduan eta epean. Informazio hori eta probak berrikusteko tokiak egokiak izango dira ahalmen urriko ikasleentzat. Edonola ere, argitaratze-datak argi agertu beharko du, kalifikazioak berrikustea eskatzeko epea zenbatzeari begira. Berrikuspena pertsonala izango da, eta banaka egingo da, eta ebaluazio-proba kalifikatu duen irakasleak edo irakasgaiaren koordinatzaileak jasotako kalifikazioari buruzko ahozko azalpenak emango dizkio ikasleari. Beharrezkoa izanez gero, ahalmen urriko ikasleen premia espezifikotara egokitu beharko da. Ebaluazioa epaimahai batek egiten badu, ikasleak eskubidea izango du bere ariketak epaimahaiaren aurrean berrikusteko. Edonola ere, berrikusteko epea lehenago amaituko da, ikasketen gestiorako arautegian aktak ixteko eta argitaratzeko ezarritako epea baino.

2.— Aktak. Irakasgai edo gai bakoitzaren aktetan ikasle bakoitzak lorturiko kalifikazioak agertuko dira. Aktak, behar bezala beteta, Ikastegiko Zuzendaritzara bidaliko dira, eta Ikastegiko idazkari akademikoak, irakaslearen sinadura egiaztatu eta gero, kalifikazioak jakinaraziko dizkio ikasleari, ikasketen gestiorako arautegian ezarrita dagoen moduan.

3.— Irakasleek kalifikazioak igortzea.

Aktaren ardura duen irakasleak dena delako arrazoiengatik sinatu ezin balu, irakasgaiaren edo gaiaren ardura duen sailak ordezkari irakasle bat izendatuko du akta sinatzeko, aurreko puntua betetze aldera.

71. artikulua.— Kalifikazio bateratua edo epaimahai bidezkoa.

1.— Lehen eta laugarren deialdien bitartean, irakasgai edo gai bateko taldeek irakasle desberdinak dituztenean, irakasleok kalifikazio-sistema bateratua ezarri ahal izango dute. Kasuotan, irakasle bakoitzak bere taldearen edo taldeen aktak sinatuko ditu.

2.— Aurreko zenbakian aurreikusitakoa gorabehera, egoera horietan ikastegietako arautegiek ebaluazio bateratua ezarri ahal izango dute 1., 2., 3. eta 4. deialdietarako. Ebaluazio bateratua irakasgaiaren edo gaiaren hiru irakasle edo irakasle guztiek osatutako epaimahaiaren bidez egingo da.

3.— Bosgarren, seigarren eta salbuespenezko deialdietako epaimahaiak Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu, ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan, sailen iritzia entzun eta gero. Epaimahaikideak saileko hiru irakasle izango dira, ahal dela irakasgaiari edo gaiari dagokion jakintza arlokoak. Kontuan hartu beharko da, halaber, irakasgaia bi hizkuntzatan ematen dela. Egindako probaz gain, epaimahaikideek kontuan hartuko dituzte ikaslearen historial akademikoa eta gainerako gorabehera akademikoak. Epaimahaia osatuko duten pertsonen zerrenda ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan jarri beharko da jendaurrean.

4.— Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onartzen duen abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuko 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz, UPV/EHUko ikasleek epaimahai batek ebaluatzeko eskatu ahal izango dute, 1., 2., 3. eta 4. deialdietan. Horri begira, epaimahai hori 5. eta 6. deialdietarako eratutakoa izango da, edo, hala dagokionean, 1., 2., 3. eta 4. deialdietarako berriaz eratzten dena, baldin eta Ikastegiko arautegian epaimahai hori eratzea aurreikusita badago. Epaimahai hori legeak aurreikusitako abstentzio- eta errefusatze-egoeretan ere jardungo du.

5.— Epaimahai horien erabakien kontra erreklamazioak jarri ahal izango dira, hurrengo artikuluan zehaztutako prozedurari jarraiki. Halakoetan, ebaluazio-proba epaimahaiak berrikusiko du.

72. artikulua.– Kalifikazioen aurkako erreklamazioa egiteko prozedura.

1.– Sailari erreklamazioa aurkezteko era. Ebaluazio-proba irakasle edo epaimahai ebaluatzailearen aurrean berrikusi ondoren, ikasleak, berrikuspenarekin ados egon ezean, kexa idatzia aurkeztu ahal izango dio saileko zuzendariari, sei egun naturaleko epean, aktak argitaratu ziren egunetik hasita.

Ikasketen gestiorako arautegiaren bidez xede horretarako izendatutako batzordeak, zeinean ezin izango baitute parte hartu aurreko ebaluazio-prozesuan esku hartu duten irakasleek, erreklamazioa aztertuko du, eta, taldeko irakaslearen iritzia entzun, egokitzen jotzen dituen ekintzak burutu, eta ikasleari entzun ondoren, erreklamazioari buruzko erabaki arrazoitua hartuko du, ikasketen gestiorako arautegiak ezarritako epean. Behar izanez gero, akta aldatuko da, ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez.

Irakasgaitzat hartutako karrera-amaierako proiektuei dagokienez, berrikuspena egingo da artikuluan honetan zehaztutako prozedurari jarraiki.

Nolanahi ere, karrera-amaierako proiektuak aztertzen dituzten epaimahaiek sailez gaindiko kideak izaten dituztenez, berrikuspenaren ondoren, erreklamazioa egiteko lehen instantzia Ikastegiko Batzarraren ordezkari batzorde bat izango da.

2.– Ikastegiari erreklamazioa aurkezteko era. Sailari aurkeztutako erreklamazioaren ebazpenarekin ados egon ezean, ikasleak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio, idatziz, ikastegiko dekanora edo zuzendariari, ikasketen gestiorako arautegian ezarritako epean.

Ikastegi bakoitzean batzorde bat eratuko da, gutxienez, hiru pertsonen osatutakoa: batzordeburua, idazkaria eta irakasle bat. Epaimahai horren bileretara Ikastegiko Ikasleen Kontseiluko burua edo berorren ordezkari ikaslea joango da. Batzorde horrek, ikasketen gestiorako arautegian ezarritako epean eta behar diren txostenak eskatu ondoren, kasua aztertu, eta erabaki arrazoitua hartuko du. Ondoren, ikasleari eta saileko zuzendariari erabakiaren berri emango die, eta zuzendariak, berriz, taldeko irakasleari eta ikastegiko idazkariari helaraziko die, jakinaren gainean egon daitezkeen eta behar diren ondorioak sor ditzan. Behar izanez gero, akta aldatuko da, ikastegiko idazkariaren diligentziaren bidez. Aipatutako batzordeko kideek ezin izango dute esku hartu ikasleak erreklamaturako kalifikazioan.

Ikastegietan atalik balego, beste bana batzorde eratuko ahal da egoitza eta atal bakoitzeko. Halakoetan, batzordekideak egoitza edo atal horretako kide izango dira eta bertako ikasleen kontseiluaren ordezkaria edo berau ordezkari lezakeena joango da bileretara.

3.– Gorako errekurtsioa. Ikasleak gorako administrazio-errekurtsioa jarri ahal izango dio errektoreari, hilabeteko epean, erreklamazioari buruzko erabakiaren kontra, eta errektoreak administrazio-bideari amaiera emango dion erabakia hartuko du.

73. artikulua.– Epeak zenbatzea.

Abuztua baliorik gabeko hilabetea izango da epeak zenbatzeko eta azterketa-egunak jartzeko.

74. artikulua.– Beste proba bat egitea.

Ikasleak beste proba bat egiteko eskubidea izango du, honako kasu hauetan:

1.– Azken kalifikazioa jartzeko proba guztiak edo batzuk programatik kanpoko gaien buruzkoak izan badira edo, programan agertu arren, irakasleak gai horiek landu ez baditu.

2.– Baldintza fisikoek edo bestelakoek eragindako ezinbesteko egoeren eraginez, ikasleentzat proba normaltasunez egitea ezinezkoa izan bada. Horrelakoetan, irakasleak, atxikita dagoen sailaren oniritziarekin, ikastegiarekin koordinatuta eta ikasleei entzun ondoren, egoera aztertuko du, eta, behar izanez gero, probak egiteko beste egun bat jarriko du, bestelako neurri bereziak hartzeko aukera baztertu gabe.

3.– Irakasleak venia docendirik ez badu.

4.– Probak egin aurretik, ikasleek ezagutzen ez zuten ebaluazio-sistema erabili badu.

5.– Ikastegiko erreklamazio-batzordeak hala erabakitzen badu, probaren emaitzak anormalak direla iritzita. Hots, irizpide akademikoen arabera, alegia, tituluaren testuingurua eta kasuan kasuko irakasgaiak edo gaiak aintzat hartuta, gainditu ez duten ikasleen kopurua arrazoiz espero zitekeena baino askoz handiagoa izan bada.

75. artikulua.– Irregularitasunak irakaskuntzen egituraketan, garapenean edo ebaluazioan.

1.– Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzak modu sistematikoan aztertuko ditu UPV/EHUko ikasleek bertako tituluetakoa irakasgaietan edo gaietan lortutako emaitza akademikoak. Horrela, kalifikazioak ikusita, behar diren neurriak hartuko dira, ikasleen emaitzak emaitza orokorretatik desbideratzen direnean. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluari hartutako neurrien berri emango zaio.

2.– Errektoreari gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio zuzendariek, dekanoez eta Ikastegiko Batzarrak hartutako erabakien aurka, eta errektorearen erabakiek agortu egingo dute administrazio-bidea.

76. artikulua.– Ebaluazio-probak gordetzea.

Ebaluazio-probak eta egin daitezkeen ahozko proben grabazioak hurrengo ikasturtea amaitu arte gorde beharko dira gutxienez, errekurtsio bat ebatzteko dagoenean izan ezik; horrelakoetan, behin betiko erabakia hartu arte gorde beharko dira. Probak gordetzeko erregimena ikastegiek ezarriko dute.

III. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA-BETEKIZUNAK EZ-BETETZEA

77. artikulua.– Irakaskuntza-betekizunak betetzen ez direnean esku hartzea.

1.– Ikastegiko eta saileko zuzendaritzek irakasleek beren irakaskuntza-betekizunak betetzen dituztela gainbegiratu beharko dute, Ikuskapen Zerbitzuarekin elkarlanean.

2.– Dekanotzek eta ikastegiko zuzendaritzek, berriz, kalifikazioak aurkezteko epeak betetzen direla egiaztatuko dute, eta, hala badagokio, epeak betetzeko eskatuko diete irakasleei, eta ez-betetzeak jakinaraziko dizkiote irakasleen gaietarako eskumena duen Errektoreordetzari, dagozkion erantzukizunak eska ditzan.

3.– Ikasleek kexa bat aurkeztu nahi badute, irakasleek beren irakaskuntza-betekizunak bete ez dituztelako, Arautegi honetako 1. eranskinean dagoen protokoloari jarraitu beharko diote. Era berean, 2. eranskinean indarrean dagoen ikuskapen-araudia jaso da.

4.– Sailetakoa edo ikastegietako zuzendaritzek edo araudiari jarraiki izendatutako ordezkoez irakaskuntzaren garapena oztokatzen duen egoera baten berri izanez gero, normaltasunera itzultzeko behar diren ekimen guztiak jarriko dituzte abian, ahal bezain laster. Berezi, dekanoez eta

zuzendariek dagozkion esku-hartze guztiak gauzatu beharko dituzte, ahal bezain laster eta lehen-tasun gisa, proba ofizialak aurreikusitako egunetan egingo direla bermatzeko.

IV. KAPITULUA

KONPENTSAZIO BIDEZKO EBALUAZIOA

78. artikulua.– Konpentsazio bidezko epaimahaia.

1.– UPV/EHUko ikastegi guztiak izango dute konpentsazio-epaimahai bat, eta Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da horren buru, edo berak izendatutako Dekanotza edo Zuzendaritza Taldeko kideren bat.

2.– Epaimahaiburuz gain, epaimahaiko idazkaria egongo da, eta hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du botoa eman. Ikastegiko idazkariak hartuko du bere gain eginkizun hori. Epaimahaian, epaimahaiburuarekin eta idazkariarekin batera, Ikastegiko sei irakaslek jardungo dute. Irakasle horiek jakintza arlo desberdinetakoak izango dira, eta Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu, ikasturte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Epaimahaiaren bileretara ikastegiko ikasleen kontseiluko burua edo berorren ordezkari ikaslea joango da, eta hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa. Jakintza arlo bateko ordezkaria joan ezin bada epaimahaiaren bilerara, beste arlo bateko irakasle batek ordezkatu ahal izango du, baina Ikastegiko dekanok edo zuzendariak horren berri jaso beharko du, epaimahaiaren aktari erantsiko zaion egiaztagiri baten bitartez.

3.– Titulu bat baino gehiago irakasten dituzten ikastegiek epaimahai bana eratu ahal izango dute titulu bakoitzerako, baldin eta Ikastegiko Batzarrak hala erabakitzen badu.

Honez gain, atalik luketen ikastegiek beste epaimahai berezi bat ezarri ahal izango du egoitzarako eta atal bakoitzeko. Honelakoetan, ataleko epaimahai bereziko burua ataleko koordinatzaileak izendatuko du eta idazkari gisa arituko da koordinatzaileak izendatuko lukeen dekanordea. Epaimahaiko gainerako sei kideak ataleko irakasleak izango dira, jakintza arlo desberdinetakoak eta ikastegiko batzarrak izendatuta. Epaimahai honen bileretara ataleko ikasleen kontseiluko burua edo eskuordetutako ikasle bat joango da; hitza izango du, baina ez botorik.

4.– Era berean, Konpentsazio Epaimahai Nagusi bat egongo da, errektoreak izendatutako pertsona bat buru izango duena. Bost irakasle izango dira bertako kide, arlo zientifiko bakoitzeko bana, eta kide horiek Kontseiluan bertan proposatuko eta berretsiko dira, ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan.

Konpentsazio Epaimahaiak ikasturtez ikasturte irizpide bereberei eusten diela bermatzeko, gutxienez kideetako bik epaimahaian jarraituko dute, hurrengo ikasturtean. Gainerakoek ikasturtea amaitzean utziko dute kargua.

Akademia antolakuntzako eskumena duen Errektoreordetzako legelaria edo horren ordezkaria epaimahaiko idazkaria izango da, eta hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du botoa eman. Konpentsazio Epaimahai Nagusiko kideren batek bere Ikastegiko Konpentsazio Epaimahaian parte hartu badu, haren ordezkari bat izendatu beharko da. Epaimahaiaren bileretara UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko burua edo berorren ordezkari ikaslea joango da, eta hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du ez botoa eman.

5.– Epaimahai horrek ebatziko ditu ikastegietako konpentsazio-epaimahaien erabakien aurka jarritako erreklamazioak.

6.– Konpentsazio Epaimahai Nagusiaren erabakien aurka gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ikasleen gaietarako eskumena duen Errektoreordetzari, hilabeteko epean.

79. artikulua.– Konpentsazioak eta erreklamazioak eskatzeko epeak eta baldintzak.

1.– Ikastegiko Konpentsazio Epaimahaiari konpentsazioa eskatzeko eta Konpentsazio Epaimahai Nagusiari erreklamazioak aurkezteko epeak indarrean dagoen ikasketen gestiorako arautegiak ezarriko ditu.

2.– Irakasgaiak konpentsazio-ebaluazioaren bidez gainditzeko, ikasleek dagokion ikasturtean matrikulatuta egon beharko dute, nahitaez. Konpentsazioa eskatzeko baldintzak une bakoitzean indarrean dagoen ikasketen gestiorako araudiak ezarriko ditu. Ezin izango da, inola ere, karrera- edo gradu-amaierako proiektu edo lanaren eta practicumaren konpentsazioa eskatu.

80. artikulua.– Txostenak eta eskaera aztertzea.

1.– Eskaera aztertu baino lehen, Ikastegiko Konpentsazio Epaimahaiko buruak iritzia eskatuko dio irakasgaiaren edo gaiaren ardura duen sailari. Iritzi hori idatziz bidali beharko du Sailak, arrazoiak emanda, ikasketen gestiorako arautegian ezarrita dagoen epean. Eskaera epaimahaiko kideren batek irakasten duen irakasgai edo gai baten gainean egin bada, Ikastegiko dekanok edo zuzendariak ordezkari bat izendatu beharko du.

2.– Epaimahaiak ikaslearen espediente osoa hartu beharko du kontuan, erabakia hartzeko.

81. artikulua.– Aldeko erabakia eta horren ondorioak.

1.– Irakasgaia gaindituzat ematea erabakitzen bada, Konpentsazio Epaimahaiko idazkariak erabaki horren berri emango dio ikaslearen ikastegiko idazkariari, eta idazkariak, «Konpentsazio-ebaluazio bidez gaindituta: 5,0» nota jarriko du, ikaslearen espedientean.

2.– Konpentsazio Epaimahaiak irakasgaia gaindituzat ematea erabakitzen badu, ikasleak deialdi bat agortuko du. Aldiz, irakasgaia ez-gaindituzat ematea erabakitzen badu, ikasleak ez du deialdirik agortuko.

3.– Konpentsazio bidez gainditutako irakasgaiaren balioa 5,0 izango da, espedientean baremoa ezartzeari begira.

4.– Ikaslearen espediente akademikoan adieraziko da irakasgaia konpentsazio-ebaluazioaren bidez gainditu dela, eta, erreferentzia gisa, erabakia zer egunetan hartu den adieraziko da.

XEDAPEN OSAGARRIA.– Izena emandako elkarteak.

Arautegi hau indarrean sartzen den egunean Elkarte Publikoen Erregistro batean izena emanda dauden baina 52. artikulua a) eta b) letretan adierazitakoa betetzen ez duten elkarteak UPV/EHUko Elkartearen Erregistroan izena emateko eskatu ahal izango dute, baldin eta 5 kide, gutxienez, UPV/EHUko ikasleak badira. Halakoetan, UPV/EHUko elkarte gisa izena ematen dutenean, «UPV/EHUko atala» adieraziko da, berariaz, eta kasuan kasuko elkartearen jarduerak UPV/EHUko ikasle diren elkartekideek gauzatzen dituztela ulertuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Elkarteak araudira egokitzea.

Gaur egun UPV/EHUn jarduten duten elkarteak sei hilabeteko epea izango dute, arautegi berrira egokitzeko, Arautegi hau indarrean sartzen den egunetik. Horretarako, aipatutako dokumentuak

aurkeztu beharko dituzte Ikasleen Errektoreordetzan. Adierazitako epea igarotakoan Arautegi honetara egokitu ez badira, UPV/EHUko ikasleen elkarte izateari utziko diote.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ikasketen antolamendurako arautegiek irakaskuntza-plangintzari eta ebaluazioari buruzko aurreikuspenak garatu ahal izango dituzte; betiere, arautegi honetan xedatutakoa errespetatuz.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean sartzea.

Arautegi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da 2012ko ekainaren 21eko bileran Gobernu Kontseiluak onartutako UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Arautegia (EHAA, 2012ko uztailaren 31, 148. zk.a). Era berean, indargabetuta gelditzen dira Arautegi honi aurka egiten dioten maila bereko edo maila apaleko arautegi guztiak.

I. ERANSKINA:

KEXAK IZAPIDETZEKO PROTOKOLOA:

UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuaren Arautegiak (EHAA, 2008ko ekainaren 20koa, 117 .zk.) jarduera-prozedurari buruzkoak, honela dio 4. artikuluko 2. zenbakian: *Ikuskaritza Zerbitzuak Jardute Planari jarraiki jardungo du, edo unibertsitateko kideren batek irakasleen irakats-betebeharren gainean jarritako salaketa edo kexen ondorioz, oinarrituak badira. Salaketa faltsua izan bada, edo asmo txarrez egindakoa, erantzukizuna eskatuko da.*

Laugarren artikulua azken paragrafoan hau ezartzen da: *Arautegi honetan jasota ez dagoenerako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari jarraituko zaio.*

Kexak idatziz egingo dira, kexen protokolo honi erantsitako eredu arautuaren arabera.

Kexak ahal bezain zehatza izan beharko du; gorabeheraren data eta ordua emango ditu, eta adierazpen orokorrak saihestuko ditu, hala nola «ez da joaten», edo «ez du joateko ohiturik», edo «normalean ez da egoten»...

Kexa-prozedurak, dagokion eredu arautua bete ondoren, honako pauso hauek emango ditu:

1.– IKASTEGIARI JAKINARAZTEA:

Ikastegiak kexa nork jarri duen jakin ez dezan, ikasleak Ikastegiko edo Campuseko Ikasleen Kontseiluko buruari edo UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko buruari bidal diezaieke. Hala, horrek bere egingo du, eta gutun bat bidaliko die, kexaren dokumentuarekin batera, Ikastegiko organoei (Zuzendaritza, Dekanotza), Ikastegiaren eremuan kexak erantzun bat jaso dezan. Ikasleen Kontseiluak Datuak Babesteari Buruzko Legearen arabera erabili beharko ditu ikasleak emandako datuak.

Ikasleen Kontseiluko buruei jasotako informazioa aztertzea gomendatzen zaie; izan ere, kexak bereak egitean eta salatzaile gisa jardutean, erantzuleak izango dira, salaketa iruzurtiak gertatuz gero.

Ikastegiak, bi egun baliiodunen epean, erantzun bat eman beharko dio kexak bere egin duen Ikasleen Kontseiluko buruari edo, hala badagokio, kexa zuzenean egin duen ikasleari. Kexa eskoletara edo ebaluazio-proba ofizialetara ez joateagatik jarri bada, Ikastegiak, gehienez, 24 orduko epea izango du kexa egiaztatzeko eta erantzuteko. Horrez gain, beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango dira, irakaskuntza-jarduera ahal bezain laster normalizatzen dela bermatzeko, ikasleen Arautegiaren 77. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– IRAKASLEEN ERREKTOREORDETZARI JAKINARAZTEA.

Aurreko atalean ezarritako epean Ikastegiak erantzun ezean edo emandako erantzunarekin ados egon ezean, ikasleak edo dagokion Ikasleen Kontseiluko buruak (kexa bere egin badu) kexa, emandako eredu arautuaren arabera, irakasleen gaietarako eskumena duen Errektoreordetzari bidali ahal izango dio, Irakasleen Zuzendaritzapean dagoen Ikuskaritza Zerbitzuak izapidetu dezan.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datuak UPV/EHUko Irakasleen Ikuskaritzarako Zerbitzuaren fitxategi ez-automatizatu batean sartuko direla. Jakinarazten dizugu eskubidea duzula zure datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien aurka egiteko; horretarako, idatzi bat bidali beharko duzu zure identitatea egiaztatzen duen dokumentu baten kopiarekin batera, helbide honetara: Irakasleen Zuzendaritza, Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa-Bizkaia. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko UPV/EHUren Arautegia kontsulta dezakezu Interneteko www.ehu.es/babestu helbidean.

Edonola ere, Ikuskaritza Zerbitzuari izena eta abizenak eman nahi ez bazaizkio, Ikasleen Kontseiluko buruari emango zaizkio, kexa bere egin dezan, eta horrek Datuak Babesteari buruzko Legearen arabera erabiliko ditu. Ikastegiari jarritako kexa Ikasleen Kontseiluko buruak bere egin, eta aurkeztu badu, berak jasoko du erantzuna eta berak bidaliko beharko dio Irakasleen Errektoreordetzari.

Irakasleen Zuzendaritzak/Ikuskaritza Zerbitzuak salaketa aztertu ondoren, oinarririk baduen egiaztatuko du, eta alegazioak egiteko 10 eguneko epea emango zaio Ilko taldeari; betiere, ikasleen anonimata gordeta.

Gaiari buruzko erabakia hartu ondoren, horren jakinarazpena igorriko da Ikastegira, ikasleak adieraziko helbidera, edo kexa bere egin duen Ikasleen Kontseilura, eta azken horrek, aldi berean, kexa jarri duen ikasleari helaraziko dio.

1. eredu: Ikasleen Kontseiluko buruari bidalitako eskaera, salatzaile gisa jardun dezan.**1. ORRIA:**

Nik, (Izenak eta Abizenak), NAN zenbakidunak eta
..... helbidean bizi denak,
adierazten dut Ikastegian emandako (titulua) ikaslea
naizela,

Eta honela jardun dut:

- Nire izenean
- Mailako eta taldeko ordezkari gisa, hau izanik:

Horretarako, erantsitako dokumentua aurkezten dut, eta Ikasleen Kontseiluko buruari
modurik egokienean jarduteko eskatzen diot, arazoa konpontze aldera.

OSO GARRANTZITSUA:

Helbide elektronikoa:.....

Telefono-zenbakia:.....

2. ORRIA:

Kexa bat aurkezten da..... Ikasleen Kontseiluaren aurrean, honi buruz:

Irakaslearen izena:jn./and.

Irakasgaia:.....

Titulua:

Ikastegia:

Kexa mota:

Irakaskuntza

Tutoretzak

Ebaluazioa

Beste bat

Adierazi kexatzeko arrazoia:

Ez da eskola/azterketara etorri

Ebaluazio-sistema aldatu du

Ez dago tutoretza-orduetan

Ez ditu notak argitaratu finkatutako epean (10 egun baliiodun, azterketa egiten denetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- **Ikasleen Kontseiluak Datuak Babesteari Buruzko Legeari jarraiki erabiliko ditu emandako datuak.**

.....(e)n, sinatzen dut 201.....(ea)n

Izena eta sinadura:

2. eredia: Ikastegiko Ikasleen Kontseiluko buruak Estatutuen 71. artikulua bertutez bidalitako kexa idatzia.

1. ORRIA:

.....jn./and.

Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria

Ikastegiko dekanoa edo zuzendari agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut, Ikasleen Kontseiluko **buru** gisa eta Estatutuen 71. artikulua xedatutakoa betez.

Kexa honen sorreran beste kexa bat dago, non adierazten baita zure Ikastegian gaiak ematen dituzten irakasleek ez dituztela dagozkien irakaskuntza-betebeharrak bete. Kexaren arrazoiak gutun honi erantsitako dokumentuan azaltzen dira.

Hala, gertaera azaltzen duen dokumentua erantsi dizut, eta Ikastegiko Zuzendaritzari modurik egokienean jarduteko eskatzen diot, arazoa konpontze aldera. Bestalde, zigorren bat ezarri behar bada, arren eskatzen dizut erreserbatutako informazioa irekitzeko, irakasleak indarrean dagoen araudiaren arabera jardun duen argitu ahal izateko.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agurrik beroena,

Leioan sinatzen dut 2017ko(a)ren.....(ea)n, dagozkion xedeetarako.

.....**Ikasleen Kontseiluko burua**
Presidente del Consejo de Estudiantes

2. ORRIA:

Kexa bat aurkezten da Ikasleen Kontseiluaren aurrean, honi buruz:

Irakaslearen izena:jn./and.

Irakasgaia:.....

Titulua:

Ikastegia:

Kexa mota:

Irakaskuntza

Tutoretzak

Ebaluazioa

Beste bat

Adierazi kexatzeko arrazoiak:

Ez da eskola/azterketara etorri

Ebaluazio-sistema aldatu du

Ez dago tutoretza-orduetan

Ez ditu notak argitaratu finkatutako epean (10 egun baliodun, azterketa egiten denetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. eredua: ikasleak zuzenean aurkeztutako kexa.**1. ORRIA:**

.....jn./and.

Ikastegiko dekanok edo zuzendaria

.....Ikastegiko dekanok edo zuzendari agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut, nire izenean eta eskubidearen jardunean, zure Ikastegian gaiak ematen dituzten irakasleek beren irakaskuntza-betebeharrak bete ez dituztela jakinarazteko. Gutun honi erantsitako dokumentuan azalpen zehatzak ematen dira. Hala, gertutakoa azaltzen duen dokumentua erantsi dizut, eta Ikastegiko Zuzendaritzari modurik egokienean jarduteko eskatzen diot, arazoa konpontze aldera. Bestalde, zigorren bat ezarri behar bada, arren eskatzen dizut erreserbatutako informazioa irekitzeko, irakasleak indarrean dagoen araudiaren arabera jardun duen argitu ahal izateko.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agurrik beroena,

Leioan sinatzen dut 2017ko(a)ren.....(ea)n, dagozkion xedeetarako.**Sin.:**
.....(e)ko ikaslea

2. ORRIA:

Nik (izenak eta abizenak),, NAN zenbakidunak
eta helbidean bizi denak,
adierazten dut Ikastegian emandako tituluko
ikaslea naizela,

Eta, honela jardun dut:

Nire izenean

Eta, hala badagokio, mailako edo taldeko ordezkari gisa, hauek izanik:(dokumentu bat
erantsiko da, mailako eta taldeko ikasleen sinadurekin)

Hala, gertutakoa azaltzen duen dokumentua erantsi dizut, eta Ikastegiko Zuzendaritzari
modurik egokienean jarduteko eskatzen diot, arazoa konpontze aldera. Bestalde, zigorren bat
ezarri behar bada, arren eskatzen dizut erreserbatutako informazioa irekitzeko, irakasleak
indarrean dagoen araudiaren arabera jardun duen argitu ahal izateko.

OSO GARRANTZITSUA:

Helbide elektronikoa:.....

Telefono-zenbakia:.....

3. ORRIA:**Kexa bat aurkezten da, honi buruz:**

Irakaslearen izena:.....jn./and.

Irakasgaia:.....

Titulua:

Ikastegia:

Kexa mota:**Irakaskuntza****Tutoretzak****Ebaluazioa****Beste bat****Adierazi kexatzeko arrazoa:**

Ez da eskola/azterketara etorri

Ebaluazio-sistema aldatu du

Ez dago tutoretza-orduetan

Ez ditu notak argitaratu finkatutako epean (10 egun baliiodun, azterketa egiten denetik)

BESTELAKOAK

Azalpen zehatza:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4. eredua: Ikasleen Kontseiluko buruak Estatutuen 71. artikulua bertutez irakasleen gaietarako eskumena duen Errektoreordetzari bidalitako kexa idatzia.

1. ORRIA:

.....jn./and.

Irakasleen Errektoreordetza

Errektoreorde agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut, Ikasleen Kontseiluko **buru** gisa eta Estutuen 71. artikulua xedatutakoaren bertutez.

Kexa honen sorreran beste kexa bat dago, non adierazten den Ikastegian gaiak ematen dituzten irakasleek ez dituztela dagozkien irakaskuntza-betebeharrak bete. Kexaren arrazoiak gutun honi erantsitako dokumentuan azaltzen dira.

Kexa hori Ikastegiari jakinarazi zitzaion, data honetan:(**kexen protokoloan ezarritako epea igarota, ikastegiak ez duelako erantzun / Ikastegiaren erantzuna asebate ez gaituelako**).

Hala, gertutakoa azaltzen duen dokumentua erantsi, eta modurik egokienean jarduteko eskatzen dizut, arazoa konpontze aldera. Bestalde, zigorren bat ezarri behar bada, arren eskatzen dizut erreserbatutako informazioa irekitzeko, irakasleak indarrean dagoen araudiaren arabera jardun duen argitu ahal izateko.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agurrik beroena,

Leioan sinatzen dut 2017ko(a)ren.....(ea)n, dagozkion xedetarako.

.....**Ikasleen Kontseiluko burua**
Presidente del Consejo de Estudiante.....

2. ORRIA:

Kexa bat aurkezten da..... Ikasleen Kontseiluaren aurrean, honi buruz:

Irakaslearen izena:.....jn./and.

Irakasgaia:.....

Titulua:

Ikastegia:

Kexa mota:

Irakaskuntza

Tutoretzak

Ebaluazioa

Beste bat

Adierazi kexatzeko arrazoiak:

Ez da eskola/azterketara etorri

Ebaluazio-sistema aldatu du

Ez dago tutoretza-orduetan

Ez ditu notak argitaratu finkatutako epean (10 egun baliiodun, azterketa egiten denetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. eredu: ikasleak irakasleen gaietarako eskumena duen Errektoreordetzari aurkeztutako kexa idatzia.

1. ORRIA:

.....jn./and.

Irakasleen Errektoreordetza

Errektoreorde agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut, nire izenean eta eskubidearen jardunean, Ikastegian gaiak ematen dituzten irakasleek beren irakaskuntza-betebeharrak bete ez dituztela jakinarazteko. Gutun honi erantsitako dokumentuan azalpen zehatzak ematen dira.

Kexa hori Ikastegiari jakinarazi zitzaion, data honetan: (***kexen protokoloan ezarritako epea igarota, ikastegiak ez duelako erantzun / Ikastegiaren erantzuna asebate ez gaituelako***).

Hala, gertutakoa azaltzen duen dokumentua erantsi, eta modurik egokienean jarduteko eskatzen dizut, arazoa konpontze aldera. Bestalde, zigorren bat ezarri behar bada, arren eskatzen dizut erreserbatutako informazioa irekitzeko, irakasleak indarrean dagoen araudiaren arabera jardun duen argitu ahal izateko.

Zure erantzunaren zain, jaso ezazu agurrik beroena,

Leioan sinatzen dut 2017ko(a)ren.....(ea)n, dagozkion xedeetarako.

Sin.:
.....(e)ko ikaslea

2. ORRIA:

Nik (Izenak eta Abizenak),, NAN zenbakidunak
eta helbidean bizi denak,
adierazten dut Ikastegian emandako (titulua) ikaslea
naizela,

Eta honela jardun dut:

Nire izenean

Eta, hala badagokio, mailako eta taldeko ordezkari gisa, hauek izanik:(dokumentu
bat erantsiko da, mailako eta taldeko ikasleen sinadurekin)

Hala, gertutakoa azaltzen duen dokumentua erantsi, eta modurik egokienean jarduteko eskatzen dizut,
arazoa konpontze aldera. Bestalde, zigorren bat ezarri behar bada, arren eskatzen dizut
erreserbatutako informazioa irekitzeko, irakasleak indarrean dagoen araudiaren arabera jardun duen
argitu ahal izateko.

OSO GARRANTZITSUA:

Helbide elektronikoa:.....

Telefono-zenbakia:.....

3. ORRIA:**Kexa bat aurkezten da, honi buruz:**

Irakaslearen izena:jn./and.

Irakasgaia:.....

Titulua:

Ikastegia:

Kexa mota:**Irakaskuntza****Tutoretzak****Ebaluazioa****Beste bat****Adierazi kexatzeko arrazoa:**

Ez da eskola/azterketara etorri

Ebaluazio-sistema aldatu du

Ez dago tutoretza-orduetan

Ez ditu notak argitaratu finkatutako epean (10 egun baliodun, azterketa egiten denetik)

BESTELAKOAK

Azalpen zehatza:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. eranskina: IKUSKAPEN-ZERBITZUAREN ARAUTEGIA (2008ko ekainaren 20ko EHAAn argitaratuta, 117.zk)

3. ERANSKINA: IKASTALDEKO ORDEZKARIAK HAUTATZEKO PROTOKOLOA

Ikastegiek akademi ikasturte bakoitzaren hasieran hauteskundeak egingo ditu ikastaldeko ordezkariak hautatzeko honako protokolo honi jarraiki:

1.– HAUTESKUNDEEN EGUTEGIA OSATU

Ikastalde bakoitzaren ordezkaria hautatuko da ikasturte bakoitzean matrikulaziorik handiena duen irakasgaien, hautazko irakasgaiak bazter utzita.

Ikastegiak edo atalak hauteskunde egutegia osatu beharko du eta bertan ezarriko ikastalde bakoitzaren ordezkariak hautatzeko datak akademi ikasturte bakoitzeko lehendabiziko 20 eskola egunen barruan. Ikastegi edo atala harremanetan jarriko da hautaketa egin behar deneko irakasgaien irakasle arduradunekin, jarraitu beharreko prozeduraren eta prozedura honetan egin behar dituen eginkizunen berri emanik. Ikastegi edo atalak bermatuko du irakasleen prestutasuna eta parte hartzea.

Hautaketa egin behar deneko irakasgaiaren irakasle arduradunak bermatu beharko du hauteskunde prozedura behar bezala garatuko dela:

- Hautaketa egin beharreko egun eta orduan egin dadila bermatuko du.
- Hautaketa aktaren eredia jasoko du ikastegi edo ataleko zuzendaritzan.
- Hautaketa egin behar denean, matrikulatutako ikasleen zerrenda eramango du.
- Hautaketa prozesuaren akta egingo du eta ikastegi edo ataleko zuzendaritzaren eskuetan jartzeko ardura izango du.

2.– IRAGARKIA

Akademi ikasturtearen hasieran, ikastegi edo atalak bertako ikasle guztiei iragarriko die hauteskunde prozesua irekiko dela, gutxien dela, hautaketa egin baino astebete lehenago.

Ikasleei jakinaraziko zaizkie ordezkarien eskubide eta betebeharez (14.2 artikulua). Era berean, jakinaraziko da ordezkari izateak kredituak aitortzeko balio lezakeela, unibertsitateko arautegiak ezarritakoarekin bat etorrira.

Ikastegi edo atalak jakinarazi beharko du, aldi berean, ikasleren bat ez balego hautaketa egin ahal izateko irakasgai batean matrikulatutako ikasleen zerrendan, eskatu ahal izango du zerrenda horietako batean sartzeko, baldin eta bi egun lehenago eskatzen badu.

3.– HAUTESKUNDE PROZEDURA

- 1) Hauteskunde mahaia osatu beharko da irakasgai irakasle arduradunak eta, alfabetikoaren ordenaz matrikulatutako ikasleen zerrendako lehenengo eta azken pertsonen osatuta (ikasgelan ez baleude, zerrendan gora eta behera egingo da, hurrenez hurren, ikasgelan diren lehenengo eta azken ikasleak aurkitu arte).

- 2) 15 minutu izango ditu hautagaiak bere programa edo ideien azaltzeko. Bi hautagai baino gehiago baleude, denbora hau 10 minututara murriztuko da.
- 3) Ondoren, mahaiak botoa emateko deia egingo die, zerrendaren ordenari jarraiki matrikulatutako pertsoneri, gainean leramaketen identifikazio agiriaren bidez identifikatu behar dutelarik.
- 4) Kontaketa jendearen aurrean egingo da.
- 5) Irakasleak akta egingen du, azken emaitza eta hautaketan gertatutako edozein gorabehera bertan jasota.
- 6) Akta tokian tokiko ikastegiko dekanotzara edo ataleko dekanordetzara eramango da.

2016ko abenduaren 22a, osteguna

IKASTALDEKO ORDEZKARIAK HAUTATZEKO AKTA

IKASTAROA:

20__ / 20__ IKASTURTEA

IKASTALDEA:

IKASGELA:

HAUTESKUNDE MAHAIA OSATU DUTE HONAKO KIDE HAUEK:

_____ andreak / jaunak (IRAKASLEA)

_____ andreak / jaunak (IKASLEA)

_____ andreak / jaunak (IKASLEA)

eta, botazioa egin delarik, emaitza hauek izan dira:

HAUTAGAIK	BOTAZIOA
1.	Aldeko botoak: _____
2.	1.
3.	2.
	3.
	Zuri: _____
	Nuluak: _____
	Emandako botoak: _____

Hautatutakoaren datu pertsonalak.

Izen-deiturak: _____; NAN:

Herria: _____; Helbidea: _____; Tfnoa.: _____

HAUTESKUNDE MAHAIA

IKASLEAK
(Sinadura)IRAKASLEAK
(Sinadura)IKASLEAK
(Sinadura)